

Goienkaria

2010eko uztailaren 16a > Egubakoitza > X. urtea > 430. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10
Kulturako Zeharraz

www.goiena.net

TOKIKOM

"Zapateroren neurriek hemen ahalik eta eragin txikiena izan dezaten nahi dugu"

Laura Garrido
PPko legebiltzarkidea > 08



G2a

Amuskako emakumeak, aktore > 31

ARRASATE

Udalbiltzaren alde Bilbon egingo den agerraldirako dei egin dute > 14

BERGARA

Agorrosinen ura eta energia aurrezteko kanpaina abian > 16

ARETXABAETA

Irailean hasiko dira konpontzen autobideak eragindako kalteak > 22



BIDAIA AGENTZIAK Garbiñe Elortza eta Alaine Arruabarrena, Bergarako Barcelo Bidaietako agenteak, bezero bat atenditzen.

MONIKA BELASTEGI

JENDARTEA > OPORRAK

Krisia gutxiago igarriko da aurtengo udako bidaietan

ILUSIOA Bidaia-agentzien esanetan, debagoiendarrok irteteko eta oporrez gozatzeko ilusioari eutsi egin diogu

HONDARTZA Askok Espainiako hondartzak aukeratu dituzte, beste behin; Kanariak dira izarra, eta Menorca igo egin da

GASTUA Hala ere, gastua txikitzen saiatzen gara: egonaldi motzagoak, aurrekontu itxiak... > 02-03

JENDARTEA > JAIK

Alardea bihar Antzuolan

Herriko jai nagusien barruan antzetzuko dute bihar, zapatua, 19:00etan, hainbat berrikuntzarekin. Horrekin batera beste hainbat ekitaldi egongo dira asteburuan. > 34

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 36-37
Non-zer > 38-39

ENPRESA > DIRULAGUNTZAK

Hiru milioi bailarako enpresentzat

Aldundiak krisiari aurre egiteko martxan jarri duen enpresen-dako planak 3.356.961 euro utziko ditu Debagoieneko 19 lantegitan, 31 proiektu garatzeko. Olano diputatu nagusia gurean izan da proiektuok ezagutzen. > 04



Aldundiko ordezkariak Elay lantegiko Aiaitui eta Alberdirekin.

A.E.

EKONOMIA > MARKA BERRIA

'Aramaixo' marka sortu dute

Herriko 1. sektoreko produktuak merkaturatu eta bultzatzea du helburu > 11

JENDARTEA > OPORRAK

Krisia iaz baino gutxiago igarri da udako bidaia hartzerakoan

BERE ONERA Bidaia-agentziak pozik daude, ondo dabiltzalako lanean udako kanpainarako; apurka, gauzak bere onera doaz

HONDARTZARA Debagoiendarron artean joera oso nabarmena da: hondartzak dira gogokoen, batik bat Espainiako kosta eta uharteetakoak

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoiendarrok betiko gogoarekin hartuko ditugu udako oporrak, eta kanpora joango gara, gutxienez astebeterako, edo hamar bat egunerako, beharbada. Hondartzara joango gara; auke-
ran, Kanariar Uharteetara joango gara, edo Balearretara, edo Espainiako kostaldeko beste leku ezagunen batera; eta haraino ailegatzeko, autoa hartuko dugu, eta, iaz baino gehiago, hegazkina ere bai, batzuek. Izan ere, aurten oso prezio onak topatzen gabilta bidaia-agentzietan; handizkariak (maioristak) prezioak txikitu egin dituzte, eta hori aprobetxatuta, orain arte gure artean hain modan ez zeuden lekuetara joango gara: Menorcara, adibidez, asko, lehen 800 eurotik behera pentsa ezinezkoa zen bidaia eta egonaldia orain 600 ingurura topatu dugulako.

Gutariko batzuk urrutirago joango gara, eta hemendik hegaldia erreserbatuko dugu; beste guztia, gure kontu, abenturazaleak ere bagara-eta. Bateren bati entzunda, Vietnamera, AEBetara, Costa Ricara, Karibera, Maien Erriberara, Mexikora, Indiara... joango gara.

Krisia oraindik gainean dugu-nez-eta ez da ahaztu behar uztai-

Menorca aurten asko saldu dute bidaia-agentziek, prezioak txikitu egin direlako: iaz 800 eurokoa zen oporraldia aurten 600 euro ingurutan egin daiteke

Gastuak zainduko dituzte bidaiariak; askok, adibidez, mantenu osoa hartu dute, hotelean otorduak egitea merkeagoa delako



Maien Erriberako irudi bat. EROSKI BIDAIAK

lean BEZa igo dela, eta horren ondorioz ia dena garestitu egin dela-, euroari ere begiratuko diogu, bai; baina horrek ez digu bidaiaitzeko ilusioa apurtxo bat ere itsungiko.

GOIZ DATOZENAK SARITU

Hori izango litzateke debagoiendarron udako bidaien erradiografia orokorra, bailarako lau bidaia-agentziak esaten dutenaren arabera. Nabardurak ere badaude.

Krisia igartzen da, baina handizkariak horretara moldatu dira eta bezeroaren mesederako izan da hori. Eroski Bidaietako Lide Gomezek dioskunez, "aurten, handizkariak saritu dituzte goiz etorri diren bezeroak, deskontuak eginez, azken orduko eskaintzen partez". Arrasate Bidaietako Bea Aldaik esaten duenez, "iaztik hona, prezioak ez dira igo eta onak dira. Uztailean eskaintza asko izan da, eta oraindik ere izango dira gehiago". Oñatiko Halcon agentziako Maitane Triciok honela dio: "Aurten prezio oso onak daude: adibidez, saldu dut Ibizara bidaia bat gazte talde baten-



Lanzaroteke Playa Blanca hondartza.

dako: hegaldia, hotelera eramatea, egonaldia eta mantenu erdia, 560 euro bakoitzak".

Dena dela, gastua zaintzen jarraitzen dugu debagoiendarrok, modu askotan: "Bidaia motzagoak egiten ditu jende askok: lehen 15 egun egiten zituzten askok orain 10 egiten dituzte. Nora joango diren ere igartzen da. Aldez aurretik erosiz gero, deskontuak daude; berriz, azken orduko pagotxak dagoeneko ez dira hainbesteterako", esaten du Barcelo Bidaietako Elaine Arruabarrenak. Azken orduko horien bila ere

joango da jendea, ordea: "Gehiena saldu dugu; baina oraindik etorriko da jendea, izan ere, uztail bukaera eta abuztu hasiera aldeko eskaintza berezien bila etorriko direnak falta dira".

Eroski Bidaietako Lide Gomezek haxe esaten du: "Kategoria txikiagoko hotelak aukeratzen dituzte batzuek; bestalde, mantenu osoa hartzen dute askok, horrela aurrekontua itxia delako eta otorduak kanpoan egitea baino merkeagoa delako". Era berean, urtean barrena "oporraldiak gehiago sakabanatzen ditugu

KLABEAK

> ESPAINIAKO HONDARTZAK

Espainiako eguzkiaren eta hondartzen bila joango dira debagoiendar gehienak udako oporretan. Kanariar uharteak dira izarra; baita Balearrak -agentzia batzuen esanetan, Menorca nabarmentzen da aurten- eta Andaluziako kostaldea, Costa Brava eta bestelakoak ere.

> FAMILIAN

Hondartza bereziki gogoko dute umeekin doazen familiek, eta horiek egun gehiago hartzen dituzte -10 bat- gazteek baino.

Bi asteke oporraldia oso gutxi egiten dute.

> ALDEZ AURRETIK

Aldez aurreko salmenta bultzatu dute handizkariak, deskontuekin; azken orduko pagotxak, gutxiago.

> NAZIOARTEKOAK

Bidaia-agentzia batzuek ondo saldu dituzte nazioarteko bidaiak; beste batzuen esanetan, Europa gutxiago saldu da aurten. Baina bat datoz esaten ez dagoela berritasun handirik: Europako hiriak edo Mediterraneoko herrialdeak; Maien Erribera; AEBak; Asia... azken urteotako joerek jarraitzen dute.

> AURREZTEA

Diruari begiratzen jarraitzen diogu, nahiz eta krisia nasaitu egin den. Modu askotan aurreztuko dugu: aurrekontu itxiak eginez, leku merkeagoak aukeratuz...

> GOMENDIOAK

Espainiako Kanpo Ministerioak egiten dituen gomendioak hemen irakur daitezke: www.maec.es.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko
Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
X. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaltzeko asmuz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko:
Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren
Industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 326535
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2010



EROSKI BIDAIAK

ESANAK

"Lehen eztei-bidaietarako zen bat, Maien Erribera, orain zabaldu egin da; bestalde, azken urteotako modako lekuek jarraitu egiten dute"

Alaine Arruabarrena > Agentea

"Orain, jendeak urtean barrena gehiago sakabanatzen ditu oporraldiak: udan hamar eguneko bidaia, herriko jaietan egun batzuetako oporralditxo..."

Lide Gomez > Agentea

"Jendeak asko begiratzen du dena guregana etorri aurretik, Interneten-eta; dena dela, prezioak ez dira asko aldatu ia zeroztik, eta onak dira"

Bea Aldai > Agentea

orain: herriko jaietan bidaia txoro bat, udan 10 bat egun..."

Bea Aldairen esanetan, "jendea etortzen da gauzak ondo begiratuta, Interneten-eta... Bestalde, penintsulan geratzen dira beste leku batzuetara joan beharrean". Eta, bestalde, "15 egunerako joan direnak oso-oso gutxi dira".

LEHENGO MODAK

Eskaera gehien izan dituzten lekuak klasikoak dira: "Penintsula, Kanariak eta Balearrak oso-oso indartsu daude. Costa Brava, Salou, Andaluzia... saltzen dabil-tza asko; Asturias eta Galizia ere dezente. Hortik aparte, betiko lekuak saldu dira: Europako hiriak, eta itsas-bidaia asko; horiek, aldeztu aurretik erreserbatuta", esaten du Bea Aldaik.

Arrasate Bidaietako agenteak ez du igarri aurten izarrik,

nabarmendu den lekurik. Hala ere, "lehenengo modako lekuek modan jarraitzen dute: Maien Erribera, lehen eztei-bidaia klasikoak zena, orain zabaldu egin da". Eta Arruabarrenaren esanetan, "bidaia handietan, denetarik dago, baina berritasunik ez". Lide Gomezek esan du "iaztik hona, nazioarteko bidaia gehiago" aukeratu duela jendeak; horietako asko, Mediterraneoan: Kroazia, Tunis, Egipto...

Gainbeheran daude, ordea, garai baten onespen handia zuten zirkuitu itxiak Espainian: "Jendea gehiago ausartzen da Europara irtetera; izan ere, Andaluziara zirkuitu antolatuta bat egitea eta Parisen egun batzuk pasatzea ia prezio berean egin daiteke; eta Andaluziara joan nahi duenak ez du zirkuitu antolatuaren beharrik", esaten du Arruabarrenak.

Lide Gomezaren iritziz, "hondartza da oraindik oporrak pasatzeko leku gogokoena"; hala ere, "ahal bada, bi estilo bateratzen du jendeak: hondartza eta tokiak bisitatzea, Europara irtetea..." Bestalde, "handizkariak lehenetik gehien saltzen zena eskaintzen jarraitu dute". Eta, berak ikusi duenaren arabera, orain, jendeak askoz gehiago konparatzen du erabakia hartu aurretik.

ILUSIOA

Aspalditik erreserba eginda dugarako zein azken orduko inspirazioaren –eta merkealdien bidea jarraituta, debagoiendar gehienok irten egingo gara udan. Lide Gomez bidaia-agentearen esanetan, "jendeak bidaia txetako eta irteteko ilusioari eusten dio; oporrak premia bihurtu ditugu".



> BARCELOTIK UHARTEETARA Barcelo Bidaietako Alaine Arruabarrenak (argazkian, jesarrita, Garbiñe Elortza lankidearekin) hauxe dio: "Kanariar eta Balear uharteak dira gustukoena aurten; eta kostak ere indar handia hartu du berriz". Bestalde, "Europara irteteko ausartagoak gara orain".



> ARRASATE BIDAIA ETATIK PENINTSULARA Bea Aldai agenteak dio "penintsulara bidaia asko" hartu dituela jendeak: "Mediterraneora, Saloura, Costa Brava... eta Asturias eta Galiziara ere askotxo, aurten". Bestelako destinoetan, "denetarik" dagoela esaten digu.



> EROSKITIK HONDARTZARA Eroski Bidaietako Lide Gomezaren esanetan (argazkian, zutik, Karmentxu Larrañaga lankidearekin), "abuztu bidaia txetako, hondartza da oraindik gustukoena". Hala ere, "jendeak bi estilo bateratzen ditu, ahal bada: hondartza eta bidaia turistikoagoak".

Euskaraz kirola gehiago gozatzen da

Euskaraz aritzeak konfiantza ematen die bezeroei

Euskaraz lan egiteak motibazioa pizten du

Euskaraz negozio hobeak egin daitezke

bai euskarari

ziurtagiriaren elkartea

902 43 00 26 / 05 59 25 50 41 baieuskarari.org

balioa eta berrikuntza

10 urte

1.500 entitate baino gehiago ziur daude

EKONOMIA > KRISIAREN AURKAKO PLANA

Foru Aldundiak 3 milioi eurorekin lagunduko ditu ibarreko enpresak


Markel Olano ahaldun nagusia Antzuolako Elayn eta Arrasateko JMA n izan zen eguaztenean, dirulaguntzekin bultzatu dituzten proiektuak ezagutzen

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Foru Aldundiak krisiari aurre egiteko plana jarri du martxan. Plan horren arabera, Aldundiak 3.356.961 eurorekin lagunduko ditu Debagoieneko 19 enpresa. Proiektuak bertatik bertara eza-gutzeko Markel Olano ahaldun nagusia eta Jose Ramon Guridi Berrikuntzako diputatua Deba-goienean izan ziren eguaztenean. Antzuolako Elay eta Arrasateko JMA Alejandro Altuna enpresa bisitatu zituzten.

ESPERANTZARAKO ZANTZUAK

"Urte konplikatua da, baina badi-rudi aktibitatea berreskuratzen hasi garela. Esperantzarako zan-



Juan Jesus Alberdi zuzendari nagusia, Guridi, Olano eta Juan Luis Aiastui.

A.E.

tzuak badauzkagu, eta gura dugu-na da enpresetako ordezkari-kin egon eta egoera bere horre-tan ezagutu", azaldu zuen Mar-kei Olanok Elay kanpoan, bisita hasi aurretik.

Debagoieneko enpresetara 2.356.961 euro bideratuko ditu Aldundiak, guztira 31 proiektu

aurrera eramateko. Antzuola, Bergara, Elgeta, Arrasate eta Oñatiko enpresak dira laguntzok jasoko dituztenak. Jose Ramon Guridi Berrikuntzako dipu-tuak esan du proiektuok lehiakor-tasuna handitzeko balioko dute-la, ez bakarrik krisiari aurre egi-teko. "Adibidez, Elayn garatzen

dabiltza ikerkuntzan oinarritu-tako proiektu bat euren produk-tua hobetzeko eta kostua txiki-tzeko", azaldu zuen Guridik. Gai-neratu zuen Debagoiena dela Gipuzkoa mailan ikerkuntzan gehien inbertitzen duen eskual-dea.

ETEOAKO: MILIOI BAT EURO

Bestalde, zientzia eta teknologia azpiegiturak bultzatzeko 10 milioiko diru partida dauka Aldundiak. Horietatik, milioi bat euro Mondragon Unibertsitate-ak Oñatin duen berrikuntza zen-troa bultzatzeko izango dira; hau da, ETEO.

"Hortaz, 3.300.000 euroko diru-laguntza bideratuko dugu Deba-goieneko enpresa eta proiektue-tara, kantitate azpimarragarria da", gaineratu zuen Olanok.

URRETXU-ANTZUOLA ERREPIDEA

Krisiari aurre egiteko oinarrie-tako bat azpiegiturak dira. "Kri-siaren aurkako plan honetan bide azpiegiturei dagokienez aurre-ratu egin ditugu Urretxu eta Antzuola arteko lanak. Aurten bertan hasiko ditugu obrak", azal-du zuen Olanok Antzuolan.

> SINDIKATUAK

Metaleko langileek protesta egin dute hitzarmena eskatzeko

ELA eta LAB sindikatuek dei-tuta protestak egin zituzten astelehenean Lazpiur lante-giaren aurrealdean. Ehunetik gora langile batu ziren meta-leko hitzarmen duina eskatze-ko Bergarako Muriondon; hain zuzen, Lazpiur aurreal-dean egin zuten protesta, Migel Lazpiur Confebaskeko presidentea da-eta.

Metaleko hitzarmenak 60.000 langilerengan du era-gina; eskatzen dutena da hitzarmen kolektibo duina.

> MONDRAGON

Enpresa munduaren gaineko liburua aurkeztu dute

Inazio Irizar doktore, Mon-dragon Unibertsitateko ira-kasle eta Euskaliteko aholku-lariak eta Greg MacLeod Filo-sofian doktoreak aurkeztu zuten liburua Garaia Berri-kuntza Gunean joan den aste-lehenean. *32 claves empresa-riales de Mondragón* da libu-ruaren izenburua.

Enpresa ikuspegitik azter-tu dute Mondragon taldea Iri-zar eta MacLeod doktoreek euren liburuan.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49



Mondragon Unibertsitateko programako sarituak, martitzenean, Arrasaten. GOIENKARIA

HEZKUNTZA > SARIKETA

Muk enpresa-proiektu berritzaileenak saritu ditu

35 egitasmo aurkeztu dira hiru arlotan: enpresa ideia berriak, landagunea garatzeko proiektuak eta gazteria, aisialdi eta kirol arloko Ideiak

MIRIAN BITERI > ARRASATE
Proiekturik bideragarrienak eta enplegua eta aberastasuna sortzeko gaitasun handiagoa dutenak. Horiexek dira Mondragon Unibertsitateak, *Ekiten* sustapenerako eta ekintzailetzako programaren harira martitzenean saritu zituen enpresa-proiektuak.
Enpresa ideien lehiaketan, Paula Arrillaga, Ainhua Gonzalez, Laura Burgoa eta Mirian Juaristik osatutako Boslan SL taldea saritu dute. Horiiek kaleko argiztapenean energia aurrezteko proiektua aurkeztu dute.
Landagunearen garapenerako lehiaketan, bestetik, Iskan-

der Alkatek, Mikel Iridoiek eta Jon Abaituak osatutako Landa-zale Kooperatiba irten da garai-le. Abaituak azaldu digu baserri-tarren produktuak saltzeko modu berria garatu dutela: "Egun, produktu ekologikoez indar handia daukate, baina bertako baserri-tarren produktuek ez daukate irteera askorik. Horri buelta emateko, guk bigarren generazioko baserriak biltzen ditugu. Hau da, egunero azokara edo erosketak egitera joaterik ez dutenei eta baserriko produktuak nahi dituztenei, Internet bidez egiteko aukera eskaintzen diegu proiektu horren bidez".

LEHIAKETA BERRIA
Enpresa eta landagunekoaz gain, aurten, gainera, gazteria, aisialdi eta kirol arloko lehiaketa antolatu dute. Joanes Rodriguezek, Markel Gibertek eta Jon Abaituak osatutako Tazebaez-Team Coaching izeneko taldea saritu dute. Kirolari gazteenei ezagutza eta balio berriak eskaini nahi dizkie talde horren proiektuak.
Kategoria bakoitzeko lehen saria 1.000 euro izan da eta irabazleek proiektua gauzatzeko beka bat eskuratzeko aukera izango dute.
Aurten, 35 proiektu aurkeztu izan dira; iaz, berriz, 19. Mondragon Unibertsitatekoek proiektuen maila ona azpimarratu nahi izan zuten martitzeneko sari banaketan, eta gaur egungo egoerara ondo moldatzen diren egitasmoak direla nabarmendu.

JENDARTEA > AGIFES ELKARTEA

AGIFES Bergarako Errotalden egongo da behin-behinekoz

Eguaztenetan bilduko dira Errotalde jauregiko gela baten, 18:00etatik 20:00etara

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Gipuzkoako eri psikikoen eta haien senitartekoen elkarteak Bergarako Errotalde jauregian (kultura etxea) izango du egoitza behin-behinekoz, bigarren solairuko gela baten.
Debagoiena osora ematen du laguntza elkarteak, bailara oso-ko bazkideak ditu; orain arte Bergarako Irizar jauregian izan dute lokala, baina hura obretan dagoen bitartean Errotaldera mugi-

tuko dira. Batez ere lan taldea bildu eta familia artekoei laguntza emateko erabiltzen dute lokala elkartekoek.
EGUAZTENETAN BATUKO DIRA
Eva Aiastui AGIFES elkarteko kideak azaldu digu eguaztenetan bilduko direla Errotalden, 18:00etatik 20:00etara.
"Arazo mentalak dituzten pertsonen eta haien familiei laguntza ematen diegu: harrera egiten

diegu eta izan dezaketen zantzak argitu", dio Aiastuik.

ZAZPI LAGUNEN TALDEA
Elkartea Bergaran dagoen arren laguntza Debagoiena osora ematen dute. "Zazpi lagun batzen gara elkartean eta laguntza emateaz gain urte osoan egiten ditugun ekitaldiak antolatzen ditugu", azaldu du Aiastuik.
Bestalde, terapeuta baten laguntzarekin terapia saioak egiten dituzte gaixoeekin. "Hori-ek 15 egunean behin izaten dira, eta irailean hasiko gara, San Martinen ondoren", dio Aiastuik.

IRABAZI ASMORIK GABEKO TALDEA
Arazo mentalak dituzten pertsonen eta horien senideek osatzen dute AGIFES taldea eta 1985. urte-tik irabazi asmorik gabeko elkar-tea dira.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Txankleta eta praka motzetan, oporren zain

Txankleta eta praka motzetan, egutegiari begira, oporrak noiz ailegatuko. Aurten ere, gazi-gozoa izan da ikasturtea. Krisiak harrapatuta segitzen dugu eta luze joko ei du. Zapateroren inkompetentziak sindikatuak ipini ditu sutan eta grebak deitu dituzte hemen eta han. *Egunkaria* kasuan justizia apur bat egin da, baina Estatu lotsabakoa eta justizia bera lotsagarri geratu dira. Udalbiltzakoena orain. Ea epaituak bakean eta libre uzten dituzten. Elkoror libre lagatzea eskatzeko Bergara mugiarazi dute plataformakoek; elefantetzarra mugitzea baino errazagoa. *Mugituko dugu!* Kanpaina polita diseinatu dute. Eak eta ezker abertzaleak eszenaratu dute ezkontza, baina ETA mutu dago... ez da seinale txarra horiek isilik egotea, nahiz eta jendartea egon zain, behin betikoz uzten dutela entzuteko irrikaz. Realta betiko tokira itzuli da eta Anoetako kanposantuan inoiz ikusi bakoak bizi izan ditugu. A ze gozatua! Espainian ere pozik, garaipena bost katalan eta euskaldun bat hamai-kakoan zutela lortu duten arren... Utziko baligute geuri ere... Katalunian ez da giro, eta gero eta gehiago dira Espainiari *adeu* esan nahi diotenak. Gurean, batze bidean da EAJ-Hamairkatetik ezkerrera dagoen abertzaletasuna. Eta Debagoi-
nean? Laster irekiko dute Olandixoko tunela eta amaituko dira ilara amaigabeak Uribarrin... Datorren ikasturtea itxaropentsuago ekingo dugula dirudi. Pilak kargatzera!

"Gero eta gehiago dira Espainiari 'adeu' esan nahi diotenak"

> Maltzagatik Zumaragara arteko trenbidea berreskuratzeko asmoa azaldu dute Madrileko eta Gasteizko gober-nuek. Ikerketa proiektua egingo dute. Eta ez dakit gazi edo gozo den: adar jotzea? Arriola Diputa-ziorako postulatze-ko kanpaina?...

> Danbaka da arrazoi eder bat oporrak disfruta-tatu ostean, ikasturte berria animatsua hasteko. Debagoiendar musika-rien uztza berria dastatze-ko gogoz gaude. Ea, bada, musikariok, gogor aprobetxatu entseguak udan eta aurkeztu proposamen freskoak.

> AZPIEGITURAK AHTren kontrako kanpaldia Antzuolan izango da aurten

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako XV. kanpaldia uztailaren 26tik abuztuaren 1era bitartean egingo da aurten, Antzuolan. Aste osoan zehar askotariko ekimenak egingo dituzte, hala nola eztabaidak, tailerrak, protesta eta informa-zio ekintzak eta musika eta antzerki ikuskizunak.
Ekimen horretako antolatzai-le AHTren Aurkako Asanbladak, gainera, uztailaren 31n Bergaran egingo den protesta-ra joateko dei egin du. Berga-rako udaletxetik abiatuta, 17:30ean, azpiegitura horren obretara egingo den manifesta-ziora, hain justu ere.

> IRTEERA Espeleoabentura dago bihar goizean Arrikrutze-ko kobetan

Bihar, zapatua, *Arrikrutz bar-ne-barnetik* ibilbidea egingo da. Hiruzpalau ordu irauten duen bisita horrek Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabeko konplexu karstikoko lur azpiko ondarea ezagutzeko aukera ematen du, Arrikrutze-ko galeria fosil eta aktibo batzuk bisitatuz. Irtee-ra ordua 09:30ean jarrita dago.
Biharkoaz gain, datozen hila-beteotan beste hainbatetan egin ahal izango da espeleoabentura: hilaren 31n, abuztuaren 14an eta 28an, irailaren 19an eta urria-ren 16an, hain justu. Interesa-tuek erreserba egin behar dute 943 08 20 00 telefonoan edo *arrikrutz@oinati.org* helbidean.



zabalik

Mikel Lezamiz

Katalanek, agur Spain

Espainiako epaileak eta politikari gehienak ez dira konturatu oraindik XXI. mendean gaudela eta Europan demokraziak ez daukala atzera egiterik.

Catalunyak sufritu duen Estatutuaren atzerakadak independentziarantz bultzatzen ditu katalanak. Herriaren bizitza sozialean, kulturallean eta kirolean barruraino sartu da ("Barsa club bat baino gehiago da") Catalunyak berak erabaki behar duela bere etorkizuna eta ez Madrilen edota Espainia guztiko politikoek eta jendeak.

Europan herrialdeen ahalmenak eta eskumenen kontzentzia hartzen hasiak dira eta laster ikusiko dugu Eskoziar Estatuak, gaurko Belgika bitan banatuta eta Flandria berria sortua. Eta nire ustez bide berdina hartuko du Catalunyak urte gutxiren buruan.

Horrek guri ere aukera eman digu geure autodeterminazio eskubidea praktikan jartzeko.

Baina garbi daukat katalanak gure aurretik eta gu baino lehenago helduko direla autodeterminazio erreferenduma botatzera, gu baino negoziatzaile hobeak eta pragmatikoagoak direlako eta Europan indar gehiago daukatelako. Kontuan izan beraiek zortzi milioi biztanle direla eta gu hiru besterik ez. Hala ere, tamaina ez da arazoa, gure herria baino estatu txikiagoak badaudelako munduan, eta ongi, gainera. Guk beste arazo bat daukagu gainetik, Nafarroarena, beste komunitate autonomo bat baita eta indar politiko atzerakoi eta zentralistak ondo kokatuta daudelako.

Hurrengo urteak guztiz interesgarriak izango dira Europako herrialdeen etorkizunean eta guk ere argi ibili beharko dugu bide berriak sortzen, eta ea alderdi politiko guztiek aurpegia garbi azaltzen duten jendearen aurrean.

"Ea alderdi politiko guztiek aurpegia garbi azaltzen duten jendearen aurrean"

usteak uste

Mirian Biteri

Marketin estrategia ezin hobe

Datorren astean Tourra pasatuko da Pirinioetatik, eta, urtero moduan, milaka euskal herritar joango dira hango errepide bazterretara txirrindularitza itzuli garrantzitsue-nean parte hartzen dutenak animatzera, eta bereziki etxekoei *bultzada* ematera. Goraipatzekoa da Euskal Herrian dagoen zaletasuna. Baina, horrez gain, azpimarratzekoa da egunotan telefonia enpresa jakin batek egiten duen publizitatea. Milaka lagun kamiseta, txano eta bestelako osagarri laranjak jantzita. Ezin ukatu marketin estrategiarekin bete-betea asmatu dutela.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Elementalena

Anjel Lertxundi Esnal
<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Irakasle da unibertsitatean eta oso kezkatuta dago ikasleen euskara-mailarekin. Gero eta garrantzi gutxiago ematen zaiola hizkuntzaren irakaskuntzari, ahokotasuna gainbehera doala, gazteak gaztelerara pasatzen direla arnasa hartu orduko. "Elementalena falta zaiek! Koma baten garrantzia azpimarratzen hasi behar, hi!". Irribarrea atera zitzaidan, eta Karl Kraus-ena kontatu nion. Idazle austriarra hil zorian zegoen. Japonek Mantxuria inbaditu zuela entzun zuelarik, Krausek:

-Ez zen horrelakorik gertatuko zorrotzagoak izan balira komaren erabilerarekin.

Surrealista ematen du. Ez da. Gauza ustez txikiei garrantzirik ez emateak zabarkeria pilotzen du eta tragedia ekartzen.

Euskaran bezala bizitzan, gauza ustez txiki baina beharrezkoak baztertzeko joera dugu eta nahiago ditugu proiektu pinpirinak. Baina elementalena –eta neketsuena–

koma baten garrantzia eta gisakoak azpimarratzea da.

SOS: txikizizioa hasi da!!!

Juan Martin Elexpuru
<http://goiena.net/blogak/elexpuru/>

Gaur arratsaldean aztarnategitik pasatu den pertsona batek esanda dakigu txikizizioa hasi dela: hainbat langile eta retroexkabadora bat ari ziren lanean, aztarnategiaren hegoaldean, ate nagusiaren inguruan.

Lurmenek egindako sondeetatik dakigu inguru horiek oso aberatsak direla arkeologia aldetik. Baina onartutako Plan Zuzendariaren arabera, 50 cm-ko sakonera arte exkabadoraz husteko baimena eman dio Nuñez zuzendari berriak bere buruari, kontuan izan gabe askoz ere azalago (20-30 cm) pieza ugari agertu zela leku horietan, Lurmenek 2005 eta 2006an egindako sondeoetan.

Txikizizioa hasi da, Nafarroako Iruñako Gaztelu Plazan gertatukoaren edizio berri baten atarian gaude. [...]

koplak

Enaitz Alustiza

AHT Aramaio Racing

Orain bi aste izan ginela Aramaioko jaietan, eta gertatu zenak zur ta lur utzi ninduen benetan.

Mondratik irten eta bidean ordu erdi gutxienez, buelta bikoitza da oraingoa ohiko bidetik irtenez.

Pista txarretan joan arren ez naiz ni mareatu askotan, baina hori zer da kotxeentzako bidea ala Dragon Khan?

Tren fantastiko baten bideak beste batzuk nola itxi? Politikoak ixilik daude ez berba ta ez iritzi.

Kamioi eta eskabadorak hor ditugu parez pare, Aurrera fartsa! Ta bitartean Aramaio bide gabe.

Triskantza hontan doaz milaka miloi, a ze hotzikara! Baserri pisten zuloentzako, berriez, dirua falta da.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK



Euzko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Euzko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Euskararen egoera Pesian

Aitzol Gandiaga
Bergara

Uztailaren 8an, Bergaran, goizeko 10:45ean Gasteizeran-tza zihoan autobusera sartzera-koan, "Landan geratzen da autobus hau?" galdetu nion gidariari; berak, ordea, gaztele-raz galdetzeko eskatu zidan, eta nik horrela egin nuen.

Bere ondoan eseri eta zera esan zidan: "¡La próxima vez que me preguntéis en vasco os voy a contestar a todos que no!". Orduan nik ahotsaren tonua altxatu gabe zera esan nion: "Yo creo que tendríais que tener un servicio mínimo por lo menos en euskera, y si no lo entiendes, me lo dices que te pregunte en castellano y aunque me fastidiaré te lo diré como ahora te lo acabo de decir"; berak, ordea, bereari jarraitu zion: bere lekutik altxatu eta niregana etortzera-koan nahiko tonu agresiboan aurpegira intsultatu eta bertako hizkuntza ofizial bakarra espainola zela behin eta berriz esateaz gain, "¡si no sabes nada cállate y a mi me hablas en castellano y punto!", erantzun zidan.

Nik eta nire lagunek ez genion erantzun, ikusten ari baikinen autobusetik bota (edo beste gauza okerragoren bat ere...) eta eguneko plana pikutara joango zela.

Landara bidean, Aretxaba-letan geratu eta neska batek ordaintzerakoan "Landara" (hau da euskaraz) esaterakoan, nahiko argi eta ozen, gidariak entzungor egin eta "si no me dices a dónde vas te cobro el viaje más largo" erantzun zion...

Horrelako egoera lotsagarri batekin ikus daiteke Pesak egin duen euskararen aldeko apustua, negargarria.

Nor garen eta norantza goazen...

Pello Otxandiano & Joxemi Campillo
(Mondragon Unibertsitateko kideak)
Aramaio

Ekainaren 29an euskal langile-riaren gehiengoa kalera atera zen espainiar gobernuak onartu berri duen lan-errefor-maren aurkako protestan. Kaleratzea merkatzea eta erraztea, hitzarmenak ez betetzeko bidea irekitzea, ABLE-ei zenbait muga kentzea, etab. helburu duen lan-errefor-mari ezetz esan zion euskal gehiengo sindikalak. Aginta-

rien esanetan, krisi ekonomi-kotik ateratzeko bidea omen da erreforma hau, nora eraman nahi gaituzten azaldu ez diguten arren. Zalantzarik gabe, aspaldiko atzerakadarik handiena eman da langileen lan-baldintzei dagokienez.

Grebaren balorazio positi-boa egin dute deitzaileek, jarraipen zabala izan baitu sektore eta lurralde desberdi-netan. Mondragon taldeko kooperatibek, aldiz, ez zuten greba deialdia babestu, kasu gutxi batzuk kenduta. Zer pentsatu eman digu gertaera honek mugimendu kooperati-boaren parte garen heinean. Aldez aurretik, garbi utzi nahi dugu kooperatibetan greba deialdia demokratikoki bozkatu zela, eta langileek beraiek grebara ez ateratzea gehiengoz erabaki zutela. Erabaki demokratikoak errespetatu beharrekoak dira beti, edozein delarik erabakia-ren emaitza. Errespetatu beharrekoak diren neurri berean dira kritikagarriak, eta gaude ikuspegi kritikoaren falta dugula oro har; beraz, uler bedi hausnarketa hau eztabaida sano eta eraikitzaile-aren akuilu modura.

Askotarikoak izan dira langile kooperatibistek grebari ezetz esateko eman dituzten argudioak. Besteak beste, badago erreforma honek langile kooperatibistei eragin-go ez dien pertzepzio orokorra. Ez da gure asmoa, ordea, eztabaida termino teknikoetan kokatuz, lan-erreformak izaera juridiko berezitua duten kooperatibetako langileei nola eragingo dien kuantifikatzea. Beste hari bati heldu nahi diogu oraingoa; izan ere, Euskal Herrian errotutako kooperatibismoak langileria-ren eskubideen murrizketa bortitz honen aurrean adierazi duen jarrera kritiko ezak kezkatzen gaitu. Hain zuzen, mugimendu kooperatiboa, gerra ondorengo ekonomia autarkikoaren garaietan, bizi-eta lan-baldintza prekarioei enpresa eredu humano eta demokratikoa gainjartzeko borondatez jaio zen. Hau da, lan-baldintza duinen aldeko konpromisoa mugimendu kooperatiboaren izateko arrazoi nagusia da. Beraz, gure ustez, lan-erreformak dakarren lan-baldintzen atzerakadaren aurrean euskal langileriaren eskubideen aldarrikapenari uko egitea nekez uler daiteke kontzientzia kooperatibistaren parametroetan. Besterik da greba deialdiaren egokitasuna eztabaidatzea, edo harago joanda, greba orokorra bitarte-ko bezala zalantzan jartzea. Baina erratuko ginateke, ekainaren 29an kalera atera ez izanaren erdigunean, kontzien-

tzia kooperatiboaren (zentzu zabalenean) ahultasuna kokatuko ez bagenu.

Kontzientzia kooperatiboa-ren ahultasuna krisi ideologi-koarekin loturik dago, eta horren diagnostikoa konplexua da. Ekuazioaren aldagai batzuk identifikatzen nekezak dira, beste batzuk jatorri globaleko-ak, eta badira aldagai lokalak, zehazki azken urteetan landu den enpresa ereduarekin zuzeneko lotura dutenak. Hala ere, atzera begiratzen entrete-nitu beharrean, etorkizuna begitandu dezagun, XXI. mendeko subjektu eraldatzai-lea eguneratu, gaurko erron-kak identifikatu argitzapen estrategikoa ekarriko duen prozesuaren baitan. Lan honetan aspalditik izaera ofiziala duten printzipio kooperatiboek gaurkotasun osoa dutela deritzogu. Gizarte-a-ren eraldaketari dagokion 8. printzipioak dioenez: *Arrasate-ko esperientzia kooperatiboak borondatea agertzen du gizarte-aren aldaketan eragiteko, beste herriekiko solidarioa, jarduera eremutatz Euskal Herria hartuz, bertako susperraldi ekonomikoan lagunduko duen hedapen prozesuaren bidez... Beste euskal erakunde ekonomi-koekin eta sozialekin lankide-tzan arituz, bereziki euskal langileriak sustatutakoekin...* *Euskara hizkuntza nazional gisa hartuz eta, oro har, euskal kulturaren elementu nagusiak biziberritzeko lankidetzan.*

Eraikuntza prozesu hone-tan, beste edozeinetan bezala, ahulguneak eta indarguneak identifikatzeak asko balio du. Momentu honetan ikusten ditugun bi ahulgune aipatzera ausartuko gara. Alde batetik, balio kooperatiboen inguruko heziketan hutsune nabarmena ikusten dugu enpresa eta hezkuntza-zentro kooperatiboe-tan. Hori dela eta, kooperatiba guztietan formazio kooperati-boa indartu behar dela uste dugu. Bide honetan, hezkuntza-zentro kooperatiboak pentsa-mendu aurrerakoi eta kritikoa-ren gotorleku bilakatu behar dira, biharko kooperatibistak hezteko. Bestalde, etorkizune-ko subjektu eraldatzailearen ahulgune nagusietako bat *teknokrazia endogenoa* dela deritzogu. Azken finean, enpresa eredu desideologiza-tuaren kudeatzaileak izan dira, espainiar erregea gonbidatzeko beharra ikusi zutenak, edo berriki Eroski *nazionalizatu* dutenak.

Arizmendiarrietak esana da, *mundua ez zaigula begira egoteko eman, eraldatzeko baizik*. Ekin diezaiogun bideari, elkarlanean, ekaina-ren 29ko grebari baietz esan genionok eta ezetz esan zenio-tenok!

Atez atekoa Hernanin

Jon Altuna
Bergara

Hernanin atez ateko bilketa jarri denetik konturatu naiz papera, beira, plastikoa eta organikoa bereizi eta gero zein zabor gutxi geratzen den. Eta errefus apur hori erretzeko ez dago 400 milioi euroko erraus-te planta erraldoirik egin beharrik. Badago diru hori zertan erabili.

Merezi du ahaleginak. Oso erraza da. Etxean lau ontzi jarri eta bakoitzean dagokion gaia botatzea besterik ez da. Gipuzkoar guztiok hau eginda, ez da zaborrik erre beharrik izango. Alternatiba hor dago.

Edukiontzietan bildu daiteke edo atez ate. 5. edu-kiontzia jartzea ez dago gaizki, baina une honetan ez da nahikoa. Atez ateko sistema jarri den hiru herrietan ehuneko 80 birziklatzera erraz iritsi daitekeela frogatu dute. 5. edukiontziarekin hori lortuko balitz, ondo legoke, baina oso urruti dago, boron-datez oraindik, hainbat kanpaina egin badira ere, herritar gehienek ez dute bereizten eta.

Beraz, ez dago besterik. Papera, beira eta plastikoa birziklatu eta berriro erabili baldin badaitezke, eta organi-koa konpostegian lurarentzat ongarri bihurtu baldin badai-teke, gaur egun ez du zentzu-rik zaborra poltsan bereizi gabe atera eta zabortegira eramateak, eta, are gutxiago, hondakin guztiak elkarrekin erretzeak.

Erraustegia egiten bada, tximiniatik aterako den kea eta labean geratuko diren errautsak, azken finean, toxikoak dira, kutsadura. Probatu nahi duenak zabor poltsa batzuk pilatu eta eman sua, plastiko eta beste honda-kinek sortutako ke eta honda-rrak zein desatseginak eta osasunarentzat arriskutsuak diren eta ingurua zenbat kutsatzen duten ikusteko.

Atez ateko bilketaren inguruko zalantzak dituena etorri Hernanira, Usurbilera edo Oiartzunera. Hiru herri hauetako esperientzia espero mugimendu zabal eta emankor baten hasiera besterik ez izatea. Ahalegina Gipuzkoa osora zabaltzeak onura besterik ez digu ekarriko. Horregatik nago moratoriaren alde, erraustegiaren proiektua sei urte gelditzearen alde. Etxean norberak sortzen duen hondakina bereizi eta ez da erre beharrik izango. Organi-koa berriro lurrari itzuliko zaio ongarri moduan.

Zorionak, aretxabaletarrei

Arrate Arkauz
Aretxabaleta

"¡Vais a flipar!" esaten dauiela aipatu zozkun hasieran aurkez-pena egin zauen Jokinek... eta hala izan zan. Nik eta nire lagunak, behintzat, flipau egin gauen. *ARE-BALEko sekretua*-z lelengo, *Simplemente*-kin gero.

Han egon gitzenok eta egon ez zitzienok badaukou nundik eta zer ikasi. Egon gitzenok gozatu gauen eta gainontzekuok, aukeria daukotzuenien ikusi. Ikastekua da euren espresatzeko gaitasuna, barrukua kanporatze-ko erraztasuna, naturaltasuna... En fin, simplemente, merezi euela *ARE-BALEko sekretua* deskubritzera juatia!

Gainera, aktore lanetan ibilitakuak gure artien egon eta euren ilusiñua eta poztasuna sentitzia... ozada bat, benetan!

Zorionak, beraz, lan hori aurrera ataraten ibili zarien aretxabaletarroi eta inguru-kuoi. Ni hurrenguaren zain geldiketan naz!

Berriro diogu: ez dago eskubiderik!

Rosa Urtzelai
(Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plataforma)
Arrasate

Goizeko seiak dira, domeka da, uztailaren 11. Argitzen ari du, orduotan argiak desegin egiten ditu itzalak eta ikusten dugun guztia ezagun egiten zaigu. Hiriaren zati bat iratzartzen ari da eta beste zatiak lotara joan gura du. Dena lasai dagoela ematen du eta ezerk ez du pentsaratzen izkina baten ostean argia bat-batean nazka eta min bihurtzen ari denik.

Emakume bat bortxatua izaten ari da momentu horretan bertan. Emakume bat beldurrak hilda dago Getxoko atari baten.

Berriro egin digute min emakumeoi, berriro eraso egin digute, euren mundu zaharkitu-tik berragertu egin dira gorroto gaituzten gizonak, zeloan dagoen euren animaliaren, euren botoerearen... izerdi koipetsua jasan behar izatera behartzera... Eta itzultzen dira gu beldurrera kondenatzera.

Baina emakumeon borroka giltzaperatu egin nahi gaituzten biktimismo hori baino haratago doa. Ez ditugu barrikadak utziko, harik eta gure askatasu-nerako eskubidea eskutik joan dadin orain eta etorkizunean.

Berriz diogu: ez dago eskubiderik! Kokoteraino gaude!

Euskal Autonomia Erkidegora "aldaketa" ekartzeko euskal sozialistekin sinatutako itunarekin gustura dago, batez ere "terrorismoaren kontrako" politikei dagokienez. Arlo ekonomikoan, oster, dio Zapateroren politikek "eragina" izan dutela Euskadin ere, "txarrerako". Pozik da Espainia munduko futbol txapeldun izan delako, eta ospatu ere egin zuen garaipena.

Laura Garrido > PPko legebiltzarkidea

"Zapateroren neurriek hemen ahalik eta eragin txikiena izatea nahi dugu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Laura Garrido (Gasteiz, 1971) abokatua PPk Gasteizko Legebiltzarrean dituen 13 legebiltzarkideetako bat da. Arabako popularren bozeramaile ere bada. PPko buru euskaldun bakarretakoa, sarri ikusten dugu euskarazko hedabideetan.

Espainia munduko futbol txapeldun. Pozik?

Pozik, jende asko bezala. Espainiarendako mundiala irabaztea oso garrantzitsua da, lehen aldia izan delako. Arrakasta izugarria izan da eta Espainiaren izea mundu osoan zabaldu da. Talde lanak bere saria izan du. Ez da erraza izan, baina lortu dugu.

Euskadik edo Euskal Herriak eta Kataluniak ere nahiko lukete munduko futbol txapelketan lehiatu. Zeuri gustatuko litzaizuke halakorik?

Nik nahi dut legearen arabera jokatzeko eta FIFAk erabakitzen du zein lehia daitekeen eta zein ez. Espainiako selekzioa da hark onartzen duena. Espainiako selekzioa ikusten dudanean, herri guztiak ordezkatzuta ikusten ditut. Denok gaude hor.

Katalunian ez da giro. Milaka lagun kalera atera dira Estatutuaren alde eta Konstituzionalaren aurka.

Epaitegi Konstituzionalak eman du epaia. Eta esan du Kataluniako Estatutuaren hainbat artikuluko Konstituzioaren aurka-koak direla. Nik salatzen dut batzuen jarrera; esaterako, Montillak Kataluniako erkidegoaren presidente bezala izan duen jarra. Desobedientzia zibilerako dei egin du. Lege bat daukagu eta epaiak edo ebazpenak errespetatu egin behar dira.

Donostian ere autodeterminazioaren aldeko manifestazioa izan zen eta eszenaratu egin zen kalean EA eta ezker abertzalearen arteko konbergentzia estrategikoa. Zela ikusten duzu bi alderdion bategite hori?

Kontuan izan behar dugu ze egoeran dagoen EA: emaitza oso txarrak lortu zituen azken hauteskundeetan, eserleku bakarrekirekin Gasteizko Legebiltzarrean, aurreko legealdian zazpi zituen-eta. Hortaz, bere lekua bilatzen dabil EA eta erabaki du ezker abertzalearekin bat egitea. Baina kontuan izan behar da ezker abertzaleak oraindik ez duela gaitzetsi ETaren terroris-

moa, eta ez da oraindik mundu horretatik apartatu. EAK bakarrik nahi du ezker abertzalearen inguruko botoak bereganatu.

Ezker abertzaleak egin duen hausnarketa zela baloratzen duzu?

Espero dut hausnarketa horrek ondorio bakarra izatea: ETaren terrorismoa gaitzestea. Oraindik ez dut halakorik ikusi, tamalez.

Bakea eta ETaren amaiera gertuago ikusten duzu?

ETA geroago eta ahulago dago, zuzenbide estatuak eskaintzen dizkigun baliabide guztiak erabili ditugulako haien aurka egiteko. Terrorismoaren deslegitimizazioa lehentasunezkoa da PPrendako eta Eusko Jaurlaritzarendako. Horrekin aurre egiten ari zaio ETari. Alderdien arteko batasunarekin amai dezakegu ETArekin.

Batasunari irteera politiko bat erraztearen aldeko iritzia eman zuen Jesus Eiguren euskal sozialisten presidentek...

Denok ezagutzen dugu Eiguren. Pertsonaia berezia da. Kezkutzen gaitu hark esandakoak, duen karguarengatik batez ere, baina lehendakariak argi esan zuen ETari aurre egiteko estrategia Jaurlaritzak markatzen duela.

Alderdien Legea gogortzearen aldekoa zara, ezker abertzalea hauteskundeetan egon ez dadin?

Espero dut aurreko hauteskundeetan gertatutakoa ez gertatzea. Espainiako Gobernuak ETArekin bultzatutako negoziazioaren ondorioz, ezker abertzaleko zerrenda batzuk legezkoak izan ziren eta gaur egungo egoera da terrorismoa gaitzesten ez duten alkate eta zinegotziak dauzkagula. Demokrazia errespetatzen ez dutenek ezin dute erakunde demokratikoetan egon. Beste baliabide batzuk bideratu behar badira herriaren ordezkari ez demokratikoak izan ez ditzagun erakundeetan, bada, egin beharko da.

EAJ eta PPren arteko harremanak normaltzeko bidean daudela dirudi. Ona da hori?

Oso ona da bi alderdi demokratikoren arteko harreman normalak edukitzea. Ez dakit ze fruitu emango dituen. Denbora behar da horretarako eta, gainera, EAJ-



Laura Garrido, PPko legebiltzarkidea, Goiena Telebistan.

ENEKO AZKARATE

ko. Gasteizen alkatetza galduko luke hauteskundeak gaur izango balira. Gero, ikusten dugu PP asko igoko dela eta gure asmoa da alternatiba sendoa izatea eta emaitzen arabera jokatzeko han eta hemen.

Euskal sozialista eta popularren arteko harremanak gaiztotu egin ditzake EAJ eta PPren arteko hurbilketak?

PP eta PSE-EEren artean sinatuta daukagun ituna osasuntsu dago. Konpromisoa hartu genuen azken urteotako politikaren norabidea aldatzeko eta politika zehatzak bultzatzeko. Konpromiso horiek betetzen diren artean, Lopez babesten segituko dugu.

Zelakoak dira popularren eta sozialisten arteko harremanak Araban?

Kontraesana da aldagatzen aldeko apustua egitea Euskadin eta Araban ez gauzatzea aldagaketa. EAJ hirugarren indarra izan zen Araban eta, halere, Foru Aldundia eskuratu zuen sozialistei esker. Norberaren interesak nagusitu dira, botere banaketa, sozialista eta jeltzaleen artean, erakunde guztietan. Alderdi sozialistak argitu behar du zein izango den bere jarrera etorkizunean.

Urtebete egin du Patxi Lopezek Eusko Jaurlaritzan. Ze balorazio?

Terrorismoaren kontrako politiketan balorazio positiboa egiten dugu. Arlo ekonomikoan, oster, Zapateroren politikak eragina izan du hemen ere, txarrerako. Beste eredu eta neurri batzuk proposatzen ditugu. Espainian Zapaterok onartu duen dekretuak krisitik ateratzeko hemen ahalik eta eragin txikiena izatea da gure asmoa eta horretan eragiten gabilta.

Euskaldun gehienei ez zaie gustatu Lopezen kudeaketa.

Euskobarometroak tendentziak markatzen ditu eta, egia esan, krisiak eragin zuzena izan du herritarren iritzian. Baina Euskobarometroak beste ondorio batzuk atera ditu: haserrearen maila hamaika puntu jaitsi da azken urtean eta askatasunaren pertzepzioa sei puntu igo da. Bestalde, gehien igo den lider politikoa Antonio Basagoiti da.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

ESPAINIA

"Espainiako selekzioa ikusten dudanean, herri guztiak ordezkatzuta ikusten ditut"

EUSKOBAROMETROA


"Euskobarometroaren arabera, gehien igo den lider politikoa Antonio Basagoiti da"

ren jarrera aldatu beharko da. Azken legealdiak indarrean dagoen sistemaren aurkako desafioz beterikoak izan dira eta batzea baino sakabanatzea sortzen zuten egitasmoak bultzatu ditu EAJk.

Donostian bat egin dezakezue popularrok eta jeltzaleek Odon Elortza alkatetzatik kentzeko?

Esku artean dauzkagun inkestek diote sozialistek asko galtzen dutela, bai Espainian eta baita Euskadin ere, eta, bereziki, gobernatzen duten tokietan, Donostian eta Gasteizen esatera-

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otolora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehio eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko lehioak

- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

LOREZAJINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA ARGAZKI LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



GARIKOITZ ITURBE



ANE JAUREGI



MARTIN URIARTE ASKASIBAR

Har ezazu parte!

Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren eta irailaren 17a bitartean.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (lehen, Arcelorren bulegoak), 20570. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua edo Basabe poligonoa E-O-5, 20550 Aretxabaleta
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.

- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta Goiena.net-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAK aukeraketa egingo luke egokien irizten dituen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak



1. saria

Canon EOS 1000D argazki kamera digitala eta KB photoestudiok emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa. Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 10 megapixel.
- Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View sistemarekin
- Flash eta guzti.



2. saria: Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaia-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:



Canon



GURE AMETSA
JATETXEA

Goienkaria
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

Goienkaria
ASTELEHENEN, aste bukaera osoa

Goiena.net

Goitb
Goiena Telebista

ARRASATE
IRRATIA

ARAMAIO > EKONOMIA

Sastiña bete egin zen Aramaio Baserri Barriren gainean jakiteko

'ARAMAIXO'

Elkartek 'Aramaixo' marka sortu du, herriko 1. sektoreko produktuak saltzeko

ZABALIK

Aramaioko ekoizle guztiak gonbidatzen dituzte proiektuarekin bat egitera

LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO

Aramaioko lehen sektorea bultzatzeko Baserri Barri (ABB) elkarteak ikusmin eta interes handia sortu ditu herrian; horren erakusle da joan den eguaztenean herritarrekin egin zuten batzar irekiak izan zuen erantzuna, Sastiña bete egin zelako eta hainbat lagun zutik geratu behar izan zirelako.

Batzar hori bi helbururekin deitu zuten arduradunek: bat, elkartearen berri ematea horko kide egin nahi duten ekoizleei; eta, bestea, herritarrei euren burua aurkeztea. Era berean, elkartek sortu duen marka –*Aramaixo*– eta logotipoa erabili zituzten. Elkartek badauka ere behin-behineko zuzendaritza taldea, elkartek orain arte batzen dituen herriko taldeen ordezkari: Juan Antonio Aretxaga Aramaioko Sagardozaileen Elkarte (ASE) ordezkaria da Baserri Barriko behin-behineko presidentea; eta, harekin batera, zuzendaritza taldean daude Jose Luis Lasaga, Aramaio Baserriarren Elkarte (Arbel) eta esnegileen ordezkaria; Jon Errasti Ingurumen zinegotzia; Pedro Lizarralde, hau ere ASEkoa; eta Alex Mendikute, Aramaio Ondarea Berreskuratzeko Taldekoa. Horrela, herriko lehen sektorearen inguruan dabilzan gehienak ordezkaturik daude.

EGOITZA, INSTALAZIOEKIN

Elkartek bere egoitza ere izango du: Mendixola gainaldean egongo da, eta obrak laster hasi



Jose Luis Lasaga eta Juan Antonio Aretxaga (ASE), Jon Errasti (Udala) eta Pedro Lizarralde (Arbel), Aramaio Baserri Barriko arduradunak. Alboan, ikurra.

TXOMIN MADINA

ko dira. 320 m²-ko egoitza izango da, eta Ikerketa eta Garapen Gune izendapena izango du. Asier Agirre alkateak uste du udarako gertu egon daitekeela. Bere esanetan, "helburua izango da Aramaio lehen sektoreko produktuak manipulatzeko eta merkaturatzeko". Horretarako, hainbat instalazio ipiniko dituzte egoitzan; adibidez, gazta egiteko makinak.

Alkateak gaineratzen du iker-tu dutela inguruko merkatua,

eta ikusi dutela "jendeak bertako produktua eskatzen" duela.

Baserri Barriko elkarte izaerarekin jarraituko du; eta berak hartzen dituen elkarte bakoitzak ere bere izaerari eutsiko dio. Hala, egoitza bateratu horretan, elkarte bakoitzak bere tokia eta bere jardura izango ditu. Denondako batzar gela bat behintzat izango duela aurreratu dute udal arduradunek. Bestalde, "aurrerago" lanpostuak sortuko direla ere esan dute.

"POZIK GAUDE"

Aramaioko baserritarren poza Juan Antonio Aretxagaren hitzek laburtzen dute: "Pozik gaude, bai, noski; izan ere, guretako proiektu oso garrantzitsua da. Aramaion ez daukagu industriarik, bakarrik baserria daukagu; hortaz, hori bultzatu behar dugu". Elkarteak "lehen sektoreko guztiak dute lekua: ekoizle handiek eta txikiek, baserritik bizi direnak zein beste lanbide bat izanda, ortutxoak

dutenak... guztiak". Etorkizunean, "beste produktu batzuk ere sartu ahal izango lirateke; adibidez, okela".

Oraingoz, Aramaio markarekin gertuko salmenta, herrikoa egin nahi dute. Hala, denboran aurrerago hartuko dituzten langile horien "lehentasuna izango da kontsumitzaileen elkarte bat sortzea, inguruko beste leku batzuetan duten moduan. Salmenta zuzena egin dezakegu, produktuekin otzarak prestatu... Ikusiko dugu".

Etorkizuna ere gogoan dute: "Gure sagarrak ezin dira lehia-tu Txinatik edo Argentinatik datozen sagar-bete itsasontzika-dekin; gu txikiak gara. Baina berezitasun bat eskaintzen dugu: kalitatea. Eta gainera, noraino ailegatuko da globalizazioa? Kontsumoa egonkortu egin da, petrolioaren kurba behera doa, eta, akaso, gaur egun oso merkea dena etorkizunean ez da hain merkea izango".

ESANAK

"Inguruko merkatuaren gaineko ikerketak eginda, ikusi dugu herritarrek bertako produktua eskatzen dutela"

Asier Agirre > Alkatea

DATUA

5

ERAKUNDE

Aramaio Baserri Barri herriko bost erakunde edo talde batzen ditu: Udala, Sagardozaileen Elkarte, Baserriarren Elkarte, esnegileen elkarte eta AOBT.

ESANAK

"Lehentasuna izango da kontsumitzaileen elkarte bat sortzea; salmenta zuzena egin dezakegu, otzarak prestatu..."

J. Antonio Aretxaga > ABBko kidea



Aitor Bergaretxe sukaldari arrasatearra.

GOIENKARIA



Cuatro jatetxeko plater batzuk.

Aitor Bergaretxe > Cuatro Barcelona jatetxea

"Sukalde ona egiten dugu, prezio onak dituelako eta kalitatezko jakiak dituelako"

UBANE MADERA > ARRASATE

Aitor Bergaretxe (Arrasate, 1977) sukaldariaren curriculum harrigarria da. Hamar urte baino gehiago daramatza sukaldari, eta Arrasate, Gasteiz, Erreterria, Balear uharte, Amerika eta bestetan ikasten eta lanean ibili eta gero, Bartzelonan zabaldu du jatetxea, bi lagunekin batera. Cuatro da izena eta Raval kalean dago, hiriaren erdigunean.

Zelakoa da Cuatro jatetxea?

Ravaleko xarma dauka: loka la adreiluzkoa da, jatorrizko obra (zortzi bat mahai), barran jateko aukera ere ematen dugu... Taberna da, jatetxea da, gauez kopak emateko lizentzia daukagu... leku informala da. Sukalde ona egiten dugu, prezio onak dituelako eta kalitatezko jakiak direlako. Baina jende mota guztiari zabalduta dago, ez bakarrik "ahal duenari". Orain dela bost hilabete zabaldu genuen.

Kritiken arabera, maila handiko sukaldariak zaudete; zu, adibidez, Mugaritzen ibilitakoa...

Bai, hirurok leku askotan ibilita gaude, maila oneko lekuak asko, eta arruntagoak beste asko. Guztietan ikasten da zerbait. Ni euskalduna naiz, bestea brasildarra da eta hirugarrena kataluniarra. Hori ere igartzen da gure sukaldaritzan.

Deskribatu, adibidez, zer jan daitekeen Cuatron.

Hasiera moduan, mollejak, pistatxo eta ogi birrinduekin, frijituta; gainetik limoi azala ere

botatzen diogu. Gero, txapiroia, shitake izeneko perretxiko eta miso izeneko pasta batekin betea (Japoniako ukitua); bakailaoa ere bai, labean egindako piper gorri eta berdeekin. Migak ere egiten ditugu ogi eta ketutako hirugiharrekin, eta gorringotxo jartzen diogu... Hartzen ditugu ideiak eta platerak osatzen ditugu, guk asmatzen ditugu.

Saiatzen gara kartako platerak bizpahiru hilean behin aldatzen. Egunero joaten gara merkatura prezioak, generoak ikustera. Zer desagertzen den, zer agertzen den... Hala osatzen dugu karta.

Zer moduz hartu dute hangoek Cuatro Barcelona?

Jendea oso pozik dago. Lekua atsegina da. Platerak ere arrazio erdiak dira, eta har ditzakezu bost-sei plater beste batekin erdibana, dastatu plater desberdi-

"Karta bizpahiru hilean behin aldatzen saiatzen gara; guk asmatzen ditugu platerak"

"Jendea oso pozik dago; bueltan dator eta kritika gastronomikoak ere onak izan dira"

"Jendeak probatzeko gogo handiagoa dauka, txuleta utzi eta gauza berriak probatu"

nak... jendea bueltan dator, eta kritikak ere onak izan ditugu. Gu oso pozik eta animatuta gaude.

Eta arrasatearrek ezagutzen dute Cuatro?

Bai. Pasatu dira batzuk. Lagunek esaten dute ze ondo dabilen Arrasateko kontaktua, autobusa edo jarri beharko dugula handik... Familiakoak ganoraz dabil-tza bai gure berri zabaltzen.

Zu zeu, oraingoz, hor zaude, baina etorkizunean etorriko zinateke jaioterrira?

Beti izan dut hori gogoan. Gainera, uste dut jatetxe kontua nahiko geldi dagoela han. Jende gehiena kooperatibatik bizi da, eta, ostalaritza ikasi arren, askok fabrika bukatu dute. Jatetxe berriak, taberna berriak zabaltzeko jendea falta da. Urteak pasatzen dira, eta jatetxeak dira berak, kartak antzerakoak... Lagunek esaten didate Cuatro moduko zerbaitek ondo funtzionatuko lukeela han, jende-ari gustatzen zaiola gauza berriak probatzea... Eta egia da. Jendea gero eta gehiago ateratzen da kanpora, hegazkina hartzea oso erraza da... Probatzeko gogo handiagoa dauka, txuleta albo batera utzi eta... Adibidez, Gasteizen japoniar bat dagoela jakin eta hara joaten dira, maki batzuk jatera...

Hiru zarete, eta jatetxea Cuatro da; nondik atera da izena?

Jarrita zuen, lehenagoko uga-zabak. Lokalaren helbidearen zenbakia da. Ez zitzaigun pentsatu oso zatarra eta aldatzekoa zenik, eta hala utzi dugu: Cuatro Barcelona.

AZOKAK > BASERRITARRAK

Opor aurreko baserritarren azkeneko azoka egingo dute bihar, zapatua, Seberren

Arrasateko baserritarrekin batera, besteak beste, Aretxabaleta eta Bergarakoak ere izango dira

A.A. / U.M. > ARRASATE

Bihar, zapatua, baserritarren 12 posturekin ipiniko dute azoka. Baserritar horien artean zortzi izango dira etxekoak, orain arteko azoka guztietan parte hartu dutenak. Baina ohi den moduan, haiekin batera herri-tik kanpoko baserrietako produktak ere izango dira, tartetan eta gertukoei dagokienez, Aretxabaletako Arkarazo au-zokoak eta Bergarakoak.

SENTSIBILIZAZIOA BEHAR

Biharkoa aurtengo seigarren azoka izango da. Eta urtea bukatu aurretik halako beste hiru egingo dituzte. Gero (abenduan) egokituko zaie baloratzea ea datorren urtean azokarekin aurrera egin edo ez.

Oraingoz, baina, gustura daude emaitzarekin. Udal teknikari Marga Garmendiaren arabera, horren adierazle da azokan parte hartzen duten baserritar "gehienek" orain arteko azoka guztietan parte hartu izan dutela: "Batzuek aha-legina egin behar izaten dute azoka horretara bakarrik datozelako, ez dira azoka plazara joaten. Salmentei dagokienez, berriz, fondoko lasterketa da: sentsibilizazioa eskatzen du; dena den, bezero finkoak badira eta berriak ere lortzen dira".

> JAIK

Karaokea, doako pintxoak eta, zelan ez, bolo-palma txapelketa, besteak beste, Santa Marinan

Hiru egun dira, baina hirurak bete-beteak izango dituzte Santa Marinan, auzoko batzordearen jai-egitarauari esker. Gaur, egubakoitza, poteoa dago, doako pintxoekin (18:00); eta bolo-boloa eta umeendako jolasak ere bai (18:30). Gauean, DJ Arcek eta Ateneo Orkestrak jardungo dute (23:00). Bihar, umeendako ekitaldiez gainera, bolo-palma txapelketa jokatu dute (13:00), auzoa bertako batukadak girotzen duen bitartean; eta besteak beste, *kojonudoak* ere izango dira, 19:30ean. Eta etzi, esaterako, karaokea egingo dute (17:00).



Ezkailuak uretan.

U.M.

Errekako arrainekin kezkatuta

Kezka azaldu gura dute Meatzerrekako hainbat bizilagunek auzoko erreka dela-eta. "Bost urtetik hona ikusi dugu uztail-abuztuan erreka siku geratzen dela, eta errekan bizi diren ezkailu eta karramarroak akabatu egiten direla. Penagarria da. Kontuan hartuta ura igerilekua betetzeko erabiltzen dela, ba, ea zerbait egin daitekeen", adierazi dute.

Maalako Jaiak 2010



Uztailaren 22a, osteguna

08:00etan: Etxafuego jaurtiketa.
16:00etan: Ume jolasak eta txokolate-jana.
19:00etan: Txikiteoa.
20:00etan: Goikobaluren ekitaldia.
21:00etan: Afaria.
22:30ean: Musika.
23:00etan: Suzko erruberak.

Uztailaren 25a, domeka

12:30ean: San Juan Bautista parrokian meza, Maalako Errabalean hil direnen omenez.
Jarraian: Maalako Errabaleko erretiratu gustientzat lunch-a Plus Ultra tabernan.

Barceló
VIAJES

**ONDO PASA
MAALAKO JAIXETAN!**

Tel.: 943 79 70 11

102 urte
• Arrasaten,
• Arrasatekin,
• Arrasaterentzat.

Casa Cenciaga

Maalako Errebala 3
Tel.-Faxa: 943 79 12 72
Jai zoriontsuak
opa dizkizugu!

ARREGI ARTE

Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 79 56 44
arregi.art@gmail.com

markoak margolanak
obra grafikoa
ispiluak erakusketak

Plus Ultra

T A B E R N A

Tel.: 943 79 20 57

HOTEL ARRASATE ** HOTELA

www.hotelarrasate.com

Biteri Etorbidea 1
Tel.: 943 79 73 22 - Faxa: 943 79 14 16
e-posta: hotel@hotelarrasate.com

KIMETZ

Taberna

Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburesak
Pintxoak
Razioak

943 10 97 30
Maalako Errebala 15. Arrasate.

BC GAZTE...UME...16urte arte.

**Jai
zoriontsuak izan!**

Tel.: 943 79 70 67

AE ELKORO

ELEKTRIZITATEA ORO AR
ATEZAIN ELEKTRONIKO
TB SATELITE / DIGITALA
DVD
TELEZABALKUNTZA
MANTENU ZERBITZUA

Tel.: 943 79 45 99
943 79 18 86

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Ondo pasau jaixak!

Tel.: 943 79 20 56

Amaia Larrañaga eta Julen Arexolaleiba > Udalbiltzaren babes taldekoak

"Egunkaria"-rekin moduan, froga dezatela Udalbiltzak ETArekin zerikusia duela; ez du loturarik"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Julen Arexolaleiba Huheziko irakasleak (Arrasate, 1962) eta Amaia Larrañaga EAKo zinegotzi ohiak (Arrasate, 1957) irakurri zuten Udalbiltzaren aldeko adierazpena, Arrasateko babes taldearen aurkezpenean.

Nola baloratzen duzue Udalbiltzaren lana, auzipetu zuten arte?

Amaia Larrañaga: Oso lan positiboa izan zen. Elkartzeko lana izan zen, udalerrien arteko harremana esparru ezberdinetan sendotzea helburu zuena. Urrats sendoak egin ziren, betiere bakea helburu zela eta bide demokratikoetatik.

Julen Arexolaleiba: Herri izaten jarraitzeko ezinbesteko tresna da guretzat Udalbiltza, Auzitegi Nazionalarendako elkarte terrorista bat bada ere.

Erakunde armatuko kide izatea leporatzen diete 22 hautetsiri.

A.L.: Hautetsiek erabateko eskubidea dute elkartzeko, erakundeak sortzeko eta ekimen berriak sustatzeko. Horregatik ETAKo kide direla esatea bidegabekeria hutsa da.



Julen Arexolaleiba eta Amaia Larrañaga, aurkezpenaren aurretik.

J.B.

"Herri izaten jarraitzeko ezinbesteko tresna da Udalbiltza, terrorista dela badiote ere"

Julen Arexolaleiba

J.A.: *Egunkaria*-rekin moduan, froga dezatela Udalbiltzak ETArekin zerikusia duela. Honek ez du ETArekin loturarik.

Zein da babesteko modua?

A.A.: Zapatuko manifestaziora joan eta antolatzen diren ekintza guztietan parte hartzea.

J.A.: *Egunkaria*-ren auzia dugu adibide garbia eta modu berean babesteko dugu. Ea auzi hau ere bertan behera geratzen den. Izan ere, beste garai batetik datorren auzia da, eta halakoe-tan epaia testuinguru politikoaren arabera edota Auzitegi Nazionalako epailearen arabera izaten da. Ikusiko dugu...

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Iñaki Gurrutxaga 'Harristik' 370 arrasatearrekin batera ospatuko du urtebetetzea

50 urte bete dituela-eta ospakizun berezia egingo dute Uarkape pilotalekuan; bazkari ostean, noski, ez dira sorpresak faltako

bazkalosteko parrandak giro-tzen –kalimotxo eskuan duela-aditu. Eguaztenean bete zituen 50 urte, eta egun handia 370 lagunekin batera ospatuko du bihar.

POTEOA, BAZKARIA ETA...

12:30ean hasiko da ospakizuna. Trikipoteoa deituta dago Arrasateko kaleetan zehar. Poteoaren ostean 14:30 aldera joango dira Uarkapera bertako pilotalekuan bazkaltzeko. Menua *Harristi*-k hitzartu du *catering* enpresa batekin: hasierakoak –patea, urdaiazpikoa, esparragoak eta txanpinoiak–, paella, saiheskiak, goxua, kafea eta kopa.

Eta bazkalostean etorriko dena ezin da iragarri. Agertoki bat egongo da pilotalekuan eta ez dira sorpresak faltako. Horren ostean, noski, parranda izango da ordu txikiak arte.

J.B. > ARRASATE

Iñaki Gurrutxaga moduan inork gutxi ezagutuko du. Nor ote da? Bada, *Harristi*. Izen eta abizenaz ez, baina ezizenez Arrasateko edozein txokotan da ezaguna. Herrigintzan gogor egiten du lan *Harristi*-k. Horregatik da hain ezaguna. Arrasateko umeen Olentzero –Gabonetako euskal pertsonaiarik maitatuena imitatzen ez du parekorik–, edozein bazkaritako sukaldari eta

> GASTRONOMIA

Osagai naturalekin egindako jakiak dastatzeko aukera gaur

Econat elkartearen ekimenez, osagai natural eta osasungarriekin egindako pintxo eta kanapeak dastatzeko aukera izango da gaur, Hondarribia kaleko 3. zenbakian. Hitzaldi labur batekin hasiko dira eta gero denetariako jakiak dastatuko dituzte. Edatekorik, noski, ez da faltako.



Denetariako jakiak izango dira. ECONAT



Hainbat alkate, zinegotzi eta herritar elkartu ziren eguaztenean Udalbiltzari babesa emateko.

JOKIN BEREZIARTUA

Alkate, zinegotzi eta herritarrak Udalbiltzarekin, auziaren bezperan

Arrasateko taldearen aurkezpenean Debagoieneko ordezkari zabala izan zen: Arrasateko Ino Galparsoro alkateaz gain, Bergarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Antzuolako, Elgetako, Leintz Gatzagako eta Aramaioko

alkateek bat egin zuten deialdiarekin. Alkateez gain zinegotzi eta herritarrak ere izan ziren, Udalbiltzari babesa askotarikoa dela erakutsita. Bihar Bilbon egingo den manifestaziora deitu dute –Casillatik, 17:30ean.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore


- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

PUB
HAIZEA



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Google taldeak -argazkian- ezustekoa emanda irabazi zuen iaz txapelketa. Finala 05:00etan amaitu zen. ARTXIBOA

ARETO FUTBOLA > 24 ORDUKO TXAPELKETA

20 taldek hartuko dute parte bihar, egun osoan eta etenik gabe

Sei multzo izango dira eta talde bakoitzak hiru lehia jokatuکو ditu, gutxienez; sariak ez dira faltako

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Zaldibarko pilotalekua 24 orduko txapelketaren lekuko izango da bihar. 20 taldek hartuko dute parte eta sei multzotan banatu dituzte: lehen bi multzoetan –A eta B– lau talde lehiatuko dira eta bik lortuko dute final-zortzirenetarako txartela; beste lau multzoetan –D, E, F eta G– hiru talde lehiatuko dira eta hirurak pasako dira. Hori

bai, kasu horietan ordenak berebiziko garrantzia izango du, final-zortzirenetan beste multzoetako talde indartsuenen edo ahulenen aurka lehiatzeko. Helburua da talde bakoitzak gutxienez hiru partidu jokatzea. Txapelketa 09:00etan hasiko da eta lehenengo faseko partiduek 22 minutu iraungo dute. Hala, taldeak sartu eta irteteko hiru minu-

tu izango dute, antolakuntzak ez du-eta atzerapen handirik egotarik nahi. Fase finaleko partiduek 25 minutu iraungo dute. Hala, atzerapenik ezean, 02:30 aldera jokatuکو da final handia.

SARI ERAKARGARRIAK
Irabazleak garaikurra, bazkari baterako bildotsa edo txuletak eta finaleko baloia irabaziko ditu. Txapeldunordeak, berriz, garai-kurra eramango du etxera. Horrez gainera, jokalaria onena ere sarituko dute.

> KONTZERTUA Aggressive Combat, Interprete Desconocido eta Fight to Life taldeek Galizian joko dute gaur

Arrasateko Aggressive Combat, Interprete Desconocido eta Fight to Life taldeak Galiziara doaz gaur. Galiziako Skarmento eta beste talde batzuen lagunak dira, eta aspalditik *Donra vs. Mondra* izeneko jaialdia antolatzen dute. Hau da, elkartrukea egiten dute: batzuetan galiziarrak hona datoz eta beste batzuetan arrasatearrak doaz hara. Oraingoan, Lalin-en (Pontevedra) joko dute.



Arrasateko Fight to Life taldea, Elkartasun Eguneko kontzertuan. ARTXIBOA

> MUSIKA Arrasateko Never Surrender eta Material Rechazado taldeek Añorgako jaietan joko dute gaur

Never Surrender eta Material Rechazadok Añorgako jaietan joko dute gaur, 22:30ean. Never Surrender jo eta ke ari da diskoa aurkezteko kontzertuak ematen; ia astebururo ari dira jotzen. Datorrenean, esaterako, Zubietako jaietan izango dira. Material Rechazado, berriz, ez dabil erritmo berean, eta, horregatik, hain justu, ikuskitzuna bermatuta dago; agertoki gosea izango dute. Talde arrasatearrekin batera Azpeitiko Friday's Crew taldeak joko du.

> KONTZERTUA Led Zeppelin talde mitikoaren bertsioak zuzenean entzun ahalko dira bihar Gure Leku tabernan

Gure Leku tabernak zuzeneko musika eskaintzeko konpromisoari gogor eusten jarraitzen du. Aste bukaera honetan Legazpiko Mothership taldeak joko du; bihar, uztailak 17, 23:00etan. Goierriko taldeak Led Zeppelin talde mitikoaren bertsioak egiten ditu –izena bera Led Zeppelinen disko batetik hartu dute– eta Arrasateko tabernara joaten denak talde esanguratsu haren doinuak zuzenean entzuteko aukera izango du.

> MUSIKA Gosek agenda beteta dauka datozen asteetarako: bihar Laudioko plazan joko du, 22:00etan

Gose taldeak zuzeneko emanaldi gosea ase ezinik dabil oraindik. Agenda lepo beteta dute; datozen egunetan hiru kontzertu eskainiko ditu hirukote arrasatearrak. Hasteko, Laudioko plazan joko dute bihar, uztailak 17, 22:00etan.

Laudion izan ostean, hurrengo hitzordua Mutrikuko Txurruka plazan izango dute, uztailaren 22an. Eta azkenik, uztailaren 24an, Soraluzeko txosnetan joko dute.

24 orduko txapelketa: lehen fasearen ordutegia

09:00	D multzoa	Carboneros - Intermitentes
09:25	E multzoa	Schalke Temeto - Doble Cero
09:50	G multzoa	Gary Cooper - Basati taberna
10:15	A multzoa	Jabulani - Gazteluondo 4A
10:40	F multzoa	Aboka - Las águilas tropicales
11:05	B multzoa	Aurten bai THC - Aldapa
11:30	A multzoa	Kajoi taberna - Txus united
11:55	B multzoa	Txuntxuneroak SC - Lasagabaster
12:20	D multzoa	Carboneros - O.C.B.
12:45	A multzoa	Gazteluondo 4A - Txus united
13:10	E multzoa	Doble Cero - 20 Paka
13:35	F multzoa	Las águilas tropicales - Steaua
14:00	G multzoa	Gary Cooper - America
14:25	A multzoa	Jabulani - Kajoi taberna
14:50	B multzoa	Aurten bai THC - Txuntxuneroak SC
15:15	B multzoa	Aldapa - Lasagabaster
15:40	D multzoa	Intermitentes - O.C.B.

16:05

E multzoa

Schalke Temeto - 20 Paka

16:30

F multzoa

Aboka - Steaua

16:55

G multzoa

Basati taberna - América

17:20

A multzoa

Jabulani - Txus united

17:45

B multzoa

Aurten bai THC - Lasagabaster

18:10

A multzoa

Kajoi taberna - Gazteluondo 4A

18:35

B multzoa

Txuntxuneroak SC - Aldapa

Oharrak:

Lehen faseko partiduek 22 minutu iraungo dute, eta fase finaleko partiduek 25 minutu. Antolakuntzak puntualtasuna eskatu die taldeei, txapelketa larregi atzera ez dadin. Atzerapenik ezean, finala 02:35ean hasiko da. Sariak: talde txapelduna, txapeldunordea eta txapelketako jokalaria onenarendako izango dira. bestalde, 19:00etan lau baloi zozketatuko dira parte hartuko duten talde guztien artean.

ITURRIA: ZALDIBARKO FUTBITO TXAPELKETA.

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaia
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

INGURUMENA > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

Agorrosinen ura erantzukizunez kontsumitzeko kanpaina hasi dute

Pertsonako 53,3 litro ur kontsumitzen da dutxa bakoitzeko, eta helburua da kopuru hori jaistea

Energia kontsumoa ere jaitsi nahi dute; ekainean 223.994 kWh kontsumitu dira, 19,25 tona petrolioren pareko

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udala arduratuta dago Agorrosinen egiten den ur eta energia kontsumo ikaragarriarekin, eta, horren erabilera egokia bultzatzeko, kontsumo kanpaina jarri du abian.

Kanpainaren helburua da erabiltzaileari gogora ekartzea zer nolako energia eta ur kontsumoak egiten diren udal instalazioetan eta, bide batez, erabiltzailearen erantzukizunezkoak diren kontsumoak kontrolatzeko kontzientzia piztea.

INFORMAZIO PANEL BIDEZ

Kanpaina informazio paneletan oinarrituko da, batez ere. Alde batetik, hilerio informazio paneletan jarriko dute egiten den energia kontsumoa; hau da, ura berotzeko erabiltzen den gasa eta argitarako eta makinatarako behar den argindarrean, guztira, zenbat kWh kontsumitzen den. Horrekin batera, energia kontsumo horrek dakartzan inpaktuak adieraziko dira; hau da, energia hori kontsumitzean atmosferara isurtzen den CO2 gas kopurua adieraziko da.

DUTXETAKO URA ZAINDU

Bestalde, hilerio udal instalazioetan ur kontsumoa nola banatzen den ere adieraziko dute. Modu horretan ikusi ahal izango da



Ume taldea eguaztenean igerilekuan jolas egiten.

MONIKA BELASTEGI

zein alderditan kontsumitzen den ur gehiago.

Logikoa den moduan, igerilekuak dira ur kontsumo handien duten guñeak (%69), baina ez da ahaztu behar erabiltzaileek zeresan handia daukatela ura erabiltzerakoan. Hain justu ere, dutxe-

tako kontsumoa izugarri handia dela ikusi da—pertsona bakoitzak 53,3 litro erabiltzen ditu dutxa bakoitzean—, eta ziurrenik litro asko alferrik galtzen uzten dira. Horregatik, horren garrantzitsua den baliabide hori ondo erabiltzeko dei egin nahi du Udalak. Horre-

tarako, astero-astero dutxetako ur kontsumoa jakinaraziko dute eta zifra hori murrizteko erronka erabiltzaile guztiei helaraziko diete.

Udaletik emandako datuen arabera, ekainean 2.831.000 litro ur kontsumitu ziren instalazio

guztia kontuan hartuta. Horietatik ur-kontsumo handiena duena da kanpoko igerilekua (% 30) eta txikiena, spa hotzak (%4). Dutxei dagokienez, berriz, Agorrosinen kontsumitzen den ur guztiaren %9 gastatzen da han.

ENERGIA KONTSUMOA

Energia kontsumoari dagokionez, gora egin du ekainean, kanpoko igerilekuak zabaldu dituztelako eta, ondorioz, gehiago erabiltzen delako Agorrosin—urtarriletik maiatzera arte joera beheranzkoa izan da ur beroaren kalefakzioaren erabilera jaitsi egin delako—. Ekainean guztira 223.994 kWh kontsumitu dira; hau da, 19,25 tona petrolioren pareko.

Energia kontsumitzen denean, nahi eta nahi ez, CO2 gasak igortzen dira atmosferara. Bada, Agorrosinek, ekainean, 40,4 tona CO2 isuri ditu atmosferara.

UDA KANPAINA AGORROSINEN

Hilaren 1a izan da orain arteko egunik jendetsuena 2.336 sarrerarekin

Kanpoko igerilekua zabaldu zutela hilabete bete da asteen. Kirol Zerbitzutik jakinarazi dutenez, batez beste 1.288 sarrera zenbatu dituzte eguneko, iaz (1.283) baino pixka bat gehiago.

Orain arteko egunik jendetsuena uztailaren 1a izan da. Egun hartan 2.336 sarrera zenbatu zituzten, baina Kirol Zerbitzutik gehitu dutenez, 2.000 sarreratik gora dagoeneko bost egunetan izan dituzte. Aurreko asteen, esaterako, izan zituzten horietako bi: uztailaren 7an eta 8an, 2.330 eta 2.154 sarrera zenbatu zituzten, hurrenez hurren. Hain justu ere, uztailaren 7an, eguaztana, 18:00 aldera kanpoko ur

putzuan izandako pilaketak ordu erdiz kanpoko igerilekurako sarrera ixtera behartu zituen hango arduradunak. Unai Asurmendik, Kirol teknikariak, honela azaldu du: "Putzuak 280 laguneko aforoa du—300 lagunearaino lagatzen dugu—, eta han pilaketa dagoela ikusiz gero, bada, hura arintzeko neurriak hartzen hasi gara: erabiltzaile batzuk barruko igerilekuetara bideratzea, hain zuzen. Eta eguaztanean horixe egin zuten sorosleek ordu erdi hartan. Istripuak saihestea da helburua".


Bestetik, erabiltzaileek eskatuta ordutegia zabaldu egin dute: 10:00-20:30 da ordutegi berria—iazko bera.

trinmer
telecomunicaciones

tdt
televisión
digital
terrestre

GOITB jada LTDn!
Egokitu zure antena GOITB-DIGITALA ikusteko.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne



TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 **EIBAR**

Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxe: 943 20 73 60 | antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

Jon Molina Arrasatetik dator eta Iñaki Amutxastegi Donostiako Altza auzotik

San Martinen aurretik etorriko dira, Juan Kruz Mendizabalek eta Iñigo Mitxelenak lagako duten lekua betetzera

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena herriko bi abadeek badituzte ordezkioak: Jon Molina aretxabaletarrak eta Iñaki Amu-

JENDARTEA > ELIZA

Jon Molina aretxabaletarra eta Iñaki Amutxastegi debarra dira etorriko diren abade berriak

txastegi debarrak hartuko dute haien lekua, nahiz eta izendapena ez den ofizial egingo uztail amaierara arte, Juan Kruz Mendizabal abadeak azaldutakoaren arabera.

Jon Molinak 40 urte ditu eta Arrasaten dihardu abade gaur egun. Iñaki Amutxastegik, berriz, 36 urte ditu eta Donostiako Altza auzoan ari da.

Juan Kruz Mendizabalek gehitu duenez, irailean etorriko dira abade berriak herrira, San Martin jaien aurretik, baina data finkorik oraindik ez dagoela ere esan du.

Bi abadeok Bergarako San Pedro eta Santa Marina parrokiez, Elosu auzokoaz, Antzuolako parrokiak eta Uzarraga auzokoaz egingo dira kargu.

GOTZAINAREN MEZA

Juan Kruz Mendizabalek esan duenez, abade berrien ongietorria eta haren eta Mitxelenaren agurra meza baten bidez egingo dute eta meza hori Jose Ignacio Munilla gotzainak esango du.

Mendizabalek Donostiara joateko lagako du Bergara, bikario izendatu dute-eta, eta Mitxelena Leireko monasteriora doa.

> UDALA

San Martinetako txosnak hartzeko epea zabaldu dute

San Martin jaietan San Martin plazan eta Seminarioko jolaslekuan jarriko diren bi txosnak esleitzeko izenemate epea zabaldu du Udalak. Plazako txosna irailaren 11n, 12an, 15ean eta 16an egongo da eta haren helburua da, plaza girotzeaz batera, feria egunean herriko harategiek bertako odolosteak ezagutzera emateko debalde emango dieten odolosteak saltzea. Seminariokoa bakarrik irailaren 11n egongo da eta taloak egitea izango da helburua.

Bietan ala bietan eskaerak aurkezteko epea hilaren 27ko 12:00etan bukatuko da, udaletxean.

> IKASTAROA

Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardunek uztailerako

Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardunek uztailaren 26an hasi eta 30era bitarterako. Eskolak Pello Muxika bergararrak emango ditu eta guztira 10 ordu izango dira, 19:00-21:00 ordutegian.

Izenematea zabalik dago, eta, horretarako, Jardunek kultura etxean duen bulegora jo behar da edo 943 76 36 61 zenbakira deitu. Prezioari dagokionez, euskara elkarterko bazkideendako 18 euro da eta gainerakoendako, 20. Izena emateko azken eguna eguaztena da, hilak 21.

Datorren astean asfaltatuko dute Ozaetako errepidea

Udal iturriek azaldu dutenez datorren astean asfaltatuko dute Ozaetako errepidea eta baita margotu ere. Horren ondotik berehala zabalduko dute ibilgailuendako -maiatzaren 31tik dago itxita-. Oinezkoendako behin-behineko bideari dagokionez, aldatu egingo dute: erreka kontran egotetik errepidearen beste aldera eroango dute.



MONIKA BELASTEGI

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Gure plateren
prezioak ez
ditugu igo.

Eta gainera,
plater berriak
dauzkagu.

Proba itzazu!



943 25 06 77

Fraskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA



Xanpainezko
sangria
BERRIA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

**Eraikuntza
materialak**

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

PIRAGUISMOA > MUNDUKO TXAPELKETA

Munduko txapelketan 45. sailkatuta eta taldeka 14. izanda itzuli da Patxi Ugalde

Bost egunez Ariege (Frantzia) egin duten munduko txapelketan esku hartu du Ugaldek; Espainiakoan izango dira asteburuan

sailkatu zen eta lehenengo 40 sailkatuek egiten zuten finalera salto. Pena izan zen, bestela 35. sailkatuko zen-eta.

TALDEKA HAMALAU GARREN

Zapatuan, berriz, taldekako txapelketan hartu zuen esku Ugal-

dek. Bergarakoak Donostiako Xabier Jauregirekin eta Lleida-ko Pau Ganyet-ekin osatu zuen hirukotea, eta 14. sailkatu ziren sailkapen orokorrean. Astean atseden hartuta, asteburuan Beti Bustikoak Orthezen izango dira, Espainiako txapelketan.



Patxi Ugalde, joan den asteburuan munduko txapelketan.

GOIENKARIA



GOIENKARIA

Auto txuri-urdina zozketan

Bergarako Txuri-urdin zale taldeak auto bat zozketatuko du irailaren 25ean, Espainiako loteriaren zenbakiaz bat datorren txartela. "Lehenengo, autoa ordaindu behar dugu, eta ateratzen duguna taldeak dituen gastuetara bideratuko dugu", adierazi du Karlos Zangituk. Zozketatzen dena Citroen C1 autoa da, -argazkian Etxaniz autoarekin.

> FUTBOLA

Mondrak, Aretxabaletak eta Urolak jokatu dute abuztuaren 26tik 28ra Bergara Hiria txapelketa

Ohorezko erregional mailako taldeak dagoeneko hasi dira datoren denboraldia prestatzen. Hasteko, hasi dira denboraldi-aurrea prestatzen, eta mahoneroek zehaztu egin dute noiz jokatu duten liga hasi aurreko torneoak: abuztuaren 26tik 28ra bitartean jokatu dute, eta Mondra, Aretxabaleta eta Urola gonbidatu dituzte.

Oporren aurretik egindako azkena

Pol-Pol mendi taldeko beteteranoek joan den asteburuan egin zuten opor aurreko azken irteera, Nafarroa eta Lapurdi aldera.

Amaiurren hasi zuten ibilbidea, eta Aritzakun bailara pasa ostean Ainhoan amaitu zuten mendi zeharkaldia. Bero sargoria izan zuten, eta zortzi ordu behar izan zituzten 25 kilometroko ibilaldia egiteko -erretratua Zuharreteko mendi lepoan ateratakoa da.

Abuztuaren atseden hartu eta gero, irailaren 11n eta 12an Pirinioetara joango dira.



JM. SASIGAIN

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

Aroztégia
San Juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04



- Proiektuak
- Koltxoiak

- Horma-armairuak
- Altzariak neurritan

- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean



Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behe
943 76 59 54 BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

MUSIKA > BLUES

'Ostiral musikalak': Travellin' Brothers taldearen kontzertua gaur Espoloian

'Red, hot & blue' (Gaztelupeko Hotsak) izenburua du haien azken lanak, kaleratzen duten hirugarrena, hain zuzen; haize sekzioa gehitu zaio aspaldian Bilbo aldeko taldeari

EDU MENDIBIL > BERGARA

Ostiral musikalak egitarauaren barruan, Travellin' Brothers taldearen emanaldia izango da gaur gauean, Espoloian, 22:30ean. Kritikaren arabera, egungo euskal blues talderik garrantzitsuenak bilakatu dira bilbotarrak. Sei urteko ibilbidea egin dute dagoeneko eta *Red, hot & blue* (Gaztelupeko Hotsak) izenburuko da haien azken lana, Kaki Arkarazorekin Andoaingo Garate estudioetan grabatutakoa. Bluesa ez ezik, swing, funk eta soul doinuak ere batu dituzte aipatutako lanean. Era berean, hasierako boskoteari haize sekzioa gehitu zaio



Travellin' Brothers taldeko kideak emanaldi baten. Zuzeneko indartsua daukate bilbotarrek.

GOIENKARIA

aspaldian. Honako hauek dira taldekideak gaur egun: Jon Kareaga (ahotsa), Aitor Cañibano (gitarra), Eneko Cañibano (baxua), Ander Untzaga (teklatuak), Isi Redondo (bateria), Alain Sancho (saxoa), Alfonso Masach (tronpeta), Estibaliz Ruiz (biolina) eta

Carlos Escudero (tronboia).

Hondarribiko azken blues jaialdiaren atarikoetan jotzetik datoz eta gure ibarrean ere izan dira hainbat aldiz *anaia bidaia-riak*. Azken diskoko kantuak izango dira gaurko emanaldiko protagonista nagusiak.

NEVERMIND PEOPLE, BUKATZEKO

Hurrengo egubakoitzean, hilaren 23an, Nevermind People taldearen kontzertua izango da Espoloian, ohiko ordutegian. Aurtengo *Ostiral musikalak* programazioko azken hitzordua izango da.

> MUSIKA

Aritzeta abesbatzaren emanaldia bihar Santa Marinan

Ohikoa den moduan, Aritzeta abesbatzako kideek emanaldia egingo dute Santa Marínako jaien barruan. Emanaldia bihar, zapatua, izango da Santa Marina parrokian, 19:45ean. Zapatuko kontzertuaren programa honako hau izango da: *Cantiga de Noiteboa*, *Nerea izango zen*, *Alleluia*, *La paloma*, *El abanico* eta *Segalariak*. Imanol Urtzelai dugu Aritzeta abesbatzako zuzendaria.

> MUSIKA

Udal Bandaren kontzertua domekan Udal Pilotalekuan

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, Santa Marina egunean, Udal Pilotalekuan, 12:30ean. Honako pieza hauek joko dituzte Bandako kideek, Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendaria- ren batutapean: *Añoranza* (Gonzalez Chirlaque), *Devonshire overture* (Ployhar), *Katuska* (zarzuelako selekzioa, Sorozabal), *My fair lady* (loewe) eta *Frenesi* (A. Dominguez).

AUKERA AZOKA

EIBAR TORIBIO ETXEBARRIA KALEA

UZTAILAK
21-22-23
10:00-20:00

Beherapenak

Askasibar - Farmalur %
Lencería Calbetón %
Arizona Jeans - Lide %
Nona - Garmen %
Tribeka - Pissa %
Narrua - Gratzina %
Guby Chicas - Tierra %
Txukuna - Guby chicos %
Rosa Domínguez %
Cedry - Ikusimakusi %
Tfiki - Errebal Kirolak %
Burbujas y más %
Txokolate - Lola's %
Bambi - Irritsa %
Kopiña - Zero - Gloss %
Doroti - No Comment %
El Corte Inglés %
Valenciaga %



JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Garagardo feriako karpak bost metro gehiago ditu luzeran

Aloña Mendik antolatutako festa domekara arte egingo dute

Erromeriak eta mus txapelketa egingo dituzte plazan jarritako karpan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aloña Mendi kirol elkarteak antolatutako IV. garagardo feria atzo 19:00etan zabaltzekoak ziren. Domekara arte zabalik egongo da plazako aparkalekuan jarri duten karpa. Gaur 19:00etatik 01:30era zabalduko dute, bihar 12:00etatik 02:00etara eta domekan 12:00etatik 22:00etara. Guztira, hamar garagardo mota jarriko dituzte, iaz baino bat gutxiago. "Alkohol bako Buckler jarriko dugu. Gainerakoak iaz gehien edan zirenak dira. Banaka batzuk oso gutxi saldu ziren, eta horiek ez ekartzea erabaki dugu", esan digu Aloña Mendiko presidente Anton Intzak.

Berrikuntza asko barik antolatu dute garagardo feria, baina atzo buru-belarri ibili ziren Aloña Mendiko sail guztietako ordezkariak lanean. Orain arte egingako garagardo feriekin alderatuta, karpa luzeagoa jarri dute: bost metro luzeagoa, hain justu ere. "Karpak moduluka antolatzeko dituzte. Guk modulu bat gehiago jartzea erabaki dugu. Hori horrela, plazako pilotalekuko zati bat hartu dugu", esan digu Intzak.



Herritarrak gargardoa eskatzen orain dela bi urteko ferian.

GOIENKARIA

Gainera, sarrera aldatu egin diote karpari. "Barruan ere aldaketa batzuk egin gura genituen. Sukaldea eta taberna bereiztu egin ditugu, usain kontuak-eta saihesteko. Ea, bada, aldaketa hauekin zerbitzua hobetzen dugun", diote antolakuntza taldekoek.

POSTRE BEREZIA

Edatekoaz gain, jatekoa ere egongo da: txerri-ukondoa eta saltxitza mota ezberdinak jarriko dituzte, eta oilasko izterrak egongo dira patata erreekin. Postre berezia ere jarriko dute.

Krisia kontuan hartu dute Aloñakoek, eta iazko prezioak mantendu egingo dituzte. Ez dute igoerarik aplikatu.

TXARTELAK PITXARRENGATIK

Garagardoa edateko pitxarrak bueltatzeko iazko sistema erabiliko dute: pitxarraren truke aste

Igeriketa sailaren 25. urteurreneko ekintzak

Aloña Mendiko igeriketa sailak 25 urte bete ditu, eta hori ospatzeko herri bazkaria egingo dute bihar, garagardo feriako karpan. Modu batera edo bestera igeriketa saileko ordezkari edo kide izan diren 100 bat lagun elkartuko dira mahaiaren bueltan. Igeriketa sailak izan duen ibilbideaz, orainaz eta etorkizunaz egingo dute berba. Bazkaldu aurretik, kiroldegian elkartuko dira Zubikoan txapelketa berezia egiteko. 10:00etan hasiko dute festa, baina igerilekuan.

DATUA

10

GARAGARDO MOTA

Horiek dira garagardo ferian jarriko dituzten garagardoak, iaz baino bat gutxiago. Horietako bat alkohol bakoia izango da. Edatekoaz gain, ukondoa, saltxitxak eta oilasko izterrak ipiniko dituzte.

bukaera osoan erabil daitekeen txartel bat emango dute. Behin edan eta pitxarra itzuli gura duenari, fidantza gisa jarritako dirua itzuliko diote.

Garagardo feria girotzeko beste hainbat ekitaldi egingo dituzte: alde batetik, gaur gauean, Gorka, Miren eta Agur taldeak erromeria egingo du; eta, bihar, Hator taldeak. Beste alde batetik, mus txapelketa jokatu dute bazkaldu ondoren.

14 SAILETAKO ARDURADUNAK

Aloña Mendi elkarteak 14 sailetako arduradunek egingo dituzte sukaldari eta zerbitzari lanak. Dagoeneko txandak zehaztu dituzte, eta sail bakoitzak egun eta ordu zehatz batzuk beteko ditu. Garagardo feriak bi helburu ditu: alde batetik, 14 sailen artean banatzeko ahalik eta diru gehien batzea; eta, beste alde batetik, sailen arteko hartu-emanak eta elkartearen eta herriaren arteko hartu-emanak sendotzea. "Festa polita da, elkarteak kalera ateratzeko. Gu, behintzat, oso pozik gaude urtero herritarrek eman diguten erantzunarekin", esan digu Anton Intzak.

UDALA > DEIALDIA

Langabeak kontratatatzeko laguntza bi enpresari

Udalak hamar langiletik beherako enpresei zuzendutako deialdiak erantzun eskasa izan du

M.B. > OÑATI

Langabeak kontratatatzeko enpresa txikiei laguntza emateko deialdiak erantzun eskasa izan du. Hain zuzen ere, 10 langile baino gutxiago dituzten hiru enpresak eskatu dute Udalen dirulaguntza. Gainera, eskaera bat bertan behera utzi dute, enpresak hamar langile baino gehiago dituelako. Hori horrela, bi enpresari emango diete laguntza.

Biek ala biek langile bat kontratatatzeko laguntza eskatu dute: batek lan jardun erdiko kontratuarekin; eta besteak, lan jardun osokoarekin.

Egun erdiko kontratuaren truke 900 euro jasoko ditu enpresak eta egun osokoaren truke, 1.800 euro. Bestalde, bi langileei gutxienez sei hilabete kontratua egingo diete, baldintzetan zehazten den moduan.

> MUSIKA

Etzi, Rogelio Botanz kantariaren emanaldia Guria tabernan

Kontzertu berezia antolatu dute Guria tabernako arduradunek domekarako. Hain justu ere, Rogelio Botanz bakarlari legazpiarrak zuzeneko egingo du 20:00etan. Sarrera irekia da herriar guztiendako.

Rogelio Botanz Legazpin bizi den bakarlaria da. 1970ko hamarkadan hasi zen musikaren munduan, eta urte haietan Kanarietara joan zen bizi izatera. 1985. urtean Taller Canario de Cancion taldea sortu zuen Pedro Guerra-ekin, eta zazpi disko grabatu zituzten. Bestalde, bakarlari gisa lau disko grabatu ditu. Azken lana, *Vuelos*, 2007an kaleratu zuen.

> KIROLA

389 neska-mutikok hasi dute udako kanpainako bigarren txanda

Udako kirol kanpainako bigarren txanda astelehenean hasi zuten. Guztira, 389 neska-mutikok jardungo dute hilaren 23ra arte. Beste behin, eskaera gehien tenisean, mini-tenisean eta patinaje egingo dituzte. Txanda bakoitzeko eskaintzak aukeratu zituzten umeek ere hilaren 23an bukatuko dute jarduna.

Bestalde, abuztuko bi txandetarako izenematea zabalik dute oraindik. Lagun gutxi batzuek eman dute izena. Interesatuak hilaren 23a baino lehen egin beharko dute izenematea kiroldegiko bulegoan. Abuztuko txandak egingo dituzte 3tik 13ra, lehen, eta 17tik 27ra, bigarrena.

> LEHIAKETA

Hamar lan aurkeztu dituzte San Migeletako egitarauko azalerako

San Migel jaietako egitaraua irudikatuko duen lana aukeratzeko lehiaketara hamar lan aurkeztu dituzte. Horien artean aukeratu dute lan onena. Epaimahaia osatzen dutenek hurrengo astean zabalduko dituzte gutun-azalak, eta adinaren arabera lanak sailkatu egingo dituzte; hain justu ere, haurrak (10 urtera arte), gazteak (10etik 14ra arte) eta nagusiak.

Maila bakoitzeko lan onena publikatu egingo du Udalak. Nagusien mailakoa San Migeletako jai egitarauko azala izango da eta etxe guztietara banatuko dute. Gainera, 350 euro jasoko ditu. Haurren eta gaztetxoaren mailakoko irabazleek opariak jasoko dituzte.

Luis Maiztegi > Oñatiko Txanpon eta Zigilu Elkarteko kidea

"Ez gara oso ezagunak, baina zigilu berriak egiten lanean dihardugu"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Luis Maiztegi (Oñati, 1949) Oñatiko Txanpon eta Zigilu Elkarteko kidea da. Bigertakariren 500. urteurrena ospatzeko, bi zigilu berezi ateratu dituzte; hain zuzen ere, San Frantzisko Borjakoaren jaiotzari buruzkoa bata eta Bidaurretako monasterioaren gainekoa bestea. Elkarreak egiten duen lanari buruz egin dugu berba Maiztegiarekin.

Zergatik egin dituzue bi zigilu horiek?
GOIENKARIAn irakurri genuen San Frantzisko Borjako Madalenako ermitan bizi izan zela eta Oñatin apaiztu zela. Jose Antonio Azpiazuk esan zigun 1510eko urriaren 28an jaio zela, eta urteurrena aprobetxatu dugu zigilua egiteko. Bestalde, Jerardo Elortzak aipatu zigun Bidaurretako monasterioa orain dela 500 urte eraikitzen hasi zirela. Bi urteurrenak aprobetxatu ditugu zigiluak egiteko.

Zigilu hauek salgai jarriko dituzue?

Oraindik ez dugu erabaki zer egingo dugun. Dakiguna da ez direla estankoetan eta postetxeetan egongo. Dena den, zigiluak salgai jartzen baditugu, norberak erosten dituenak erabili ahalko ditu gutunak bidaltzeko.

Zenbat zigilu egin dituzue?
Guztira, 300: zigilu bakoitzaren 150 kopia.

Oñatiko Txanpon eta Zigilu Elkartean ez zaudete geldi.
Hala da. Gure lanarekin jarraitzen dugu. Egun, bost bat

"Zigilu beraren bi bertsioak lortzen ahalegintzen naiz: berria eta erabilitakoa"

"Bilduma egiten hasi gura duenari esango nioke irizpide edo gai zehatz bat aukeratzeko"

500. urteurrenak gogoratzeko
San Frantzisko Borjakoaren jaiotzaren eta Bidaurretako monasterioa eraikitzen hasi ziren dataren 500. urteurrenak bete zirela jakin bezain pronto hasi ziren lanean Txanpon eta Zigilu Elkartekoak. Jabier Erostarbek egin ditu diseinuak, eta bakoitzaren hainbat zirriborro egin ditu. Batez ere, zalantzak izan dituzte Bidaurretakoa aukeratzeko. Azkenean, eskumako irudian daudenak aukeratu dituzte. Zigilu bakoitzetik 150 kopia egin dituzte.



Zigilu berriak. LUIS MAIZTEGI

lagunek dihardugu lanean. Astero biltzen gara Bidebarrietako lokalean, eta elkartearen gaineko berriak komentatzen ditugu. Aldika, zigilu berriak egiteko proiektuekin hasten gara.

Oñatiarrek badakite halako elkarte bat dagoela herrian?
Esango nuke ezetz; oro har, ez. Egia da egiten dugun lan guztia ez dugula erakusten. Noiz-behinka bakarrik sortzen dira gure gaineko albisteak.

Zer lan dituzue esku artean?
Elkarte moduan baino lan gehiago egiten dugu banaka. Norberak bilduma ezberdinak egiten ditu. Nik, adibidez, Kanadan, Zeelanda Berrian, Australian, Frantzian, Suitzan, Alemanian eta Ingalaterran argitaratutako zigiluen bilduma egiten dihardut.

Zergatik herrialde horietakoak?
Kalitate eta diseinu oneko zigiluak direlako. Gainera, herrialde horietan ez dituzte tira-da handiak egiten. Zigilu bakoitzetik kopia gutxi batzuk egiten dituzte.

Zigilu berriak eta erabilitakoak gordetzen dituzu?
Bai. Ez da erraza zigilu beraren bi bertsioak lortzea. Berriak topatzea errazagoa da, baina zirkulazioan egon dena lortzea, zailagoa. Zigilu-marka izatea da onena, datarekin. Horrela, zein herrian egon den jakin ahal izaten dugu.

Zigilu bilduma egiten hasteko zer hartu beharko genuke kontuan?
Niretako garrantzitsuena da gai zehatz bat aukeratzeko. Ezin



Luis Maiztegi. M.B.

gara zigiluak biltzen hasi, irizpide zehatz barik. Onena da zigiluak gaika gordetzea: animalienak, herrialde ezberdinetakoak... Baina, beti irizpide bat oinarri hartuta. Bilduma egiten hasi gura duenari aholku hori emango nioke, hortaz: gai zehatz bati buruzkoa egitea.

Gure elkarteko kide batek txakurrei buruzko zigiluen bilduma egiten dihardu. Ni txantxi-kuen gainekoarekin nabil buru-belarri.

Zalantzaren bat duena zuekin jar daiteke hartu-emanetan?
Bai, horixe. Behar duen laguntza emango diogu.

San Frantziskori buruzko liburua
Jose Antonio Azpiazuk *San Frantzisko Borjako Oñatiko Madalena ermitan* delako liburua idatzi du. Jerardo Elortzak euskarazko bertsioaren moldaketa egin du. Bestalde, maketazioa Jabier Arriaranek egin du, eta argazkiak Jose Fernandezek dira. 40 orriko liburua da, eta gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak bilduko dituzte liburu berean. Aurkezpena Madalenako jaietan aurkeztuko dute: hilaren 25ean, meza ospatu ondoren.

KULTURA > OLAITTURI ELKARTEA

'Lizargarateko Txamao' antzezlanaren estreinatuko dute Makalenakoek irailean

30 bat lagunek parte hartuko dute Oñatiko unibertsitatean gertatutako istorioan

M.B. > OÑATI
Makalena elkartearen baitan sortutako Olaitturri taldeak antzezlan berria estreinatuko du irailearen 29an. Hain zuzen ere, *Lizargarateko Txamao* delako lana.

Elkarteko 30 bat lagunek parte hartuko dute antzezlanean, batzuek aktore moduan eta beste batzuek kantari moduan. Lehen emanaldia Sancti Spiritu Unibertsitate aurrean egingo dute.

Lizargarateko Txamao antzezlanean, Oñatiko unibertsitatean gertatutako istorio bat kontatzen dute. Inazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak egokitu dituzte testuak.

'OÑATIKO HITZARMENA'
Olaitturri elkarteak 2009ko urtarriaren 30ean sortu zuten Makalena elkarteko kide batzuek. Iaz, elkarte moduan eratuta, *Oñatiko hitzarmena* antzezlanaren sortu eta erakutsi zuten herritarren aurrean. Estreinuko emanaldia San Migel jaietan egin zuten. Herritarren erantzuna ikusirik, beste bi emanaldi egin zituzten 2009ko Gabonetan.

oharrak

JAIKAK
> Trianako jaietako zenbaki sari-tuak
Trianako jai batzordeak egindako zozketan bi zenbaki saritu dituzte: 386 (Odriozola harategiko produktuekin osatutako saskia); eta, 1.390 (Urtia-gain jatetxean bi pertsonendako afaria).

DEIALDIA
> Dantzariendako eta danbor-joleendako izenematea zabalik
Irailaren 28an nagusien danborradan parte hartu gura duten dantzariak eta danbor-

joleek hilaren 29ra arte eman dezakete izena kultura etxean eta gaztelekuko informazio puntuan. Parte hartu gura duten dantzariak 1993. urtean jaiotakoak izan beharko dute, eta danbor-joleak 18 urtetik gorakoak.

OSPAKIZUNA
> 1964an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute uztailaren 24an.
Etxe Aundin egingo dute uztailaren 24an. Interesatuak 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 30350005310051041678 zenbakian.



Galartza auzora bidean dagoen Egileor baserri inguruak, autobidearen lanek kalteak eragindako lekua.

M.A.

HIRIGINTZA > BERRESKURATZE LANAK

Irailean hasiko dira konpontzen autobidearen lanek egindako kalteak

Lanik handienak Bidegiren ardurapean daude, Izurietako bidea esaterako; beste batzuk Udalak kudeatuko ditu

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean zabaldu zituen Bidegik autobidearen lanek Aretxabaletan eragindako kalteak konpontzeko deialdi-
ra aurkeztutakoen eskaintzak. Orain, guztiak aztertu eta lanak esleitu beharko ditu. Udal Hirigintza Saileko ordezkariak uste dute irailera arte ez dituztela hasiko konponketa lan horiek.

IZURIETARA DOAN BIDEA

Kalte handiak sortu dituzte autobidearen lanek, batez ere Izurietan eta Galartza aldean. Horiek guztiak konponduko zituela hitz eman zuen Bidegik, eta konponketa lan horiei helduko die orain. Hainbat lan, garrantzitsuenak, Bidegik zuzenean kudeatuko ditu; horien artean daude Izurietan auzora doan GI-3132 errepidea -227.445 euroko aurrekontuarekin, bi hilabeteko lanak- eta Basagoiti ubidea berreskuratzeko lanak Untzilla aldera doan GI-3920 errepidearekin batera -635.607 euroko aurrekontua, bederatzi asteko lanak.

Horiez gain, beste kontu batzuk ere ordainduko ditu Bidegik: Egileor baserriko ur deposituetatik behin-behineko ur hartunea kendu zenetik eragindako ur gastuak; herritarren zelaietan izandako diru galerak... baita aldi baterako egindako desjabe-
tzeak itzuli ere.

UDALAREN ARDURAPEAN

Beste lan batzuk, oster, Udalaren ardurapean utzi dituzte hitzarmen baten bitartez. Lan horiek Udalak esleitu eta kudeatuko ditu eta bukatutakoan ordaindu egingo dizkio Bidegik. Horien artean honakoak daude: Antxustegi baserriko kutxatila konpondu; Apotzagaetxebarri auzoko bide ertzeko partzelak garbitu; Lausitta kaletik Salluente ermitara doan areka egin; tunelaren irteeratik Salluentera doan bidea hobetu; Lausittako mendi malda egonkortu eta ur deposituak berriro jarri; Egileor aldeko bideak eta inguruak berreskuratu; Ametzara doan errepidea konpondu; Oro auzoko basoen azpiko aldeko bide berria egin...

Lan horiek guztiak egiteko eskaintzak aztertzen dabil orain Udala, irailean has daitezen.

Hasi dira Lausittako etxe txikien saneamendu lanak

Eraikuntzako langileek egindako grebaren ondorioz atzeratu egin dira Lausitta kaleko etxe txikien saneamendu lanak, baina dagoeneko hasi dituzte. Gertaketa lanak egiten dabilta egunotan, eta, lehenengo, ur zikinen hodiak bideratu beharko dituzte. Errepi-
dearen beste aldean dagoen zaharren egoitzako kolektorearekin elkartuko dituzte hodi horiek.



Lausittako etxe txikien aurrealdea lanak hasteko gertatuta dago.

M.A.

GERTAKIZUNAK > LAPURRETAK

Herritarrak haserre autoetan egindako lapurretengatik

Maiatza eta uztaila bitartean hainbat auto eta garajetan ostu dute

M.A. > ARETXABALETA

Azken bi hilabeteotan lapurreta ugari izan dira herrian. Batez ere autoetan egin dituzte lapurretak, kalean aparkatutako autoetan, eta garaje batzuetan ere sartu dira. Hori horrela, herritarrak kezkatuta eta haserre dabilta.

GREMIOETAKOEI MATERIALA

Irratiak eroan dituzte gehiengotik lapurrek, baina hainbat gremiotako autoetan ere sartu dira eta horiei materiala kendu diete. Arotz, iturgin eta igeltseroak izan dira lapurretak jasan dituztenak; arotzaren kasuan, gainera, 15 egunen barruan bi aldiz. "Irrati modernoak ez dituztela eroaten diote batzuek, kodifikatuta egoten direlako", dio udaltzain batek, baina era berean

jakinarazi du horien kodigoak lortzeko gero eta hobeto moldatzen direla.

Iralabarri plazako garaje batean ere sartu ziren lapurrak, baita etxeren batean ere. Eta automobilen bat ere eroan dute.

Herriko udaltzainek ezin dute eman lapurreten gaineko datu zehatzik, salaketa guztiak ez dituztelako eurek bideratzen: "Herritar batzuk udaltzainongana etortzen dira, baina beste batzuek ertzainengana jotzen dute; aste bukaeran gertatuz gero, esaterako. Hortaz, zenbat lapurreta egon diren esatea zaila da", dio udaltzainetako batek. Nahiz udaltzainek, nahiz ertzainek bideratu salaketa, gero Bergarako epaitegi-
ra bidaltzen dituzte guztiak.

ATXILOKETARIK EZ

Oraingoz ez da egon atxilotetarik lapurreta horiengatik guztiengatik, eta udaltzainek uste dute ez dela samurra izango haiek harrapatzea, "gehiengotik taldean" ibiltzen direlako.



Plasma bidezko ebaketa makina berria tailerrean.

ARETXABALETA INSTITUTUA

HEZKUNTZA > ARETXABALETA INSTITUTUA

Makina berriak metal eraikuntzako tailerrean

Soldadura erroberta eta plasma bidezko ebaketa makina datorren ikasturtean erabiliko dituzte

M.A. > ARETXABALETA

Aretxabaleta institutuan dagoen Lanbide Eskolan eraikuntza ikasketak trebatzeko daukaten tailerrean makina berriak eskuratu dituzte datorren ikasturteari begira: ABB soldadurako erroberta eta Tekoi markako plasma bidezko ebaketa makina.

Bi makina berri horiek 2008an inauguratutako 1.200 metro koadroko tailerra osatu dute.

LANGABEENDAKO SOLDADURA

Irailean hasiko duten 2010-2011 ikasturtean hasiko dira erabil-

tzen bi makina horiek; batetik, erdi mailako soldadura eta gal-
daragintza zikloan eta, bestetik, goi mailako metal eraikuntzak ikasketetan.

Hobetuz-en bitartez langabeendako ikastaroak ere ematen dituzte institutuan eta soldadura ikastaroetan erabiliko dute makinak bat. Hala, hurrengo urteotan erkidegoko enpresetan egongo den prestatutako langileen beharrak asetzeko gertu egon gura dute institutuan. Era berean, "prestatutako industria" egitera animatzen dituzte gazteak.

> IKUSKIZUNA
'Superplast'
antzezlanaren
Hortzmugarekin

Zaborraren gaineko hausnarketa dakar Hortzmuga taldeak egunean, hilak 22, Arkupeira (19:00). 20 urte baino gehiago lanean daramatzan taldeak Max saria jaso zuen iaz *Superplast* antzezlanagatik, euskarazko antzerki egilerik onenaren tartearen. Familia guztiarendako ikuskizuna da, eta debalde.

Udako zinemari dagokionez, osterar, *Millennium 3* filmak emango dio bukaera. Hilaren 21 eta 22an (21:30) eta 26an (16:00) emango dute.

> DEIALDIA
Ile-apaintzailea behar
du Basotxo
erretiratuen elkarteak

Ile-apaindegi zerbitzua eskaintzen du Basotxo erretiratuen elkarteak Errekabarraren kalean duen egoitzan. Hainbat urtean ile-apaintzaile lanetan ibili denak utzi egingo du postua eta haren ordezkari bila dabil Basotxoko zuzendaritza. Interesatuak telefono honetara dei egin dezatela: 680 76 75 97. Deitze-ko azken eguna uztailaren 18a da, domeka.

KULTURA > ANDRAMAIXAK

Yera Sanchezen
irudiak emango
du jaien berri

Egitarauan erabiliko duten esaldia Maddi eta Uxue Bengoetxeak asmatutakoa da

Gazte Ekimeneko kideek batzarra egin dute asteen eta dagoeneko egitaraua zehaztu dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Gero eta gertuago ditugu Andramari jaiak eta Kultura Sailak gertu dauka egitaraua. Uztailaren 22an jasoko dugu etxean, oporretan kanpora joan aurretik zer izango dugun jaietan jakiteko.

Yera Sanchez aretxabaletarak egindako irudiak iragarriko ditu jaiak, hura izan da eta kartel lehiaketako irabazlea. Urtero aurkeztzen da Sanchez lehiaketara eta dagoeneko seigarren aldiz irabazi du, lehenengoa 12 urte zituenean. "Oraingoan teknika ezberdinak nahastu ditut: argazkiak, eskuz egindako marrazkiak eta ordenagailua", jakinarazi

zi du; eta kartel alaia egin gura izan du herritar bi dantzan marraztuta.

ESALDI IRABAZLEAK
Prebentzio Zerbitzuak, osterar, esaldi lehiaketako irabazleen berri eman du. Maddi eta Uxue Bengoetxea ahizpendako izan da sari nagusia –120 euro– eta jaietarako deia egingo digu esaldi horrek egitarauan: *Ene Andramaria! Ez zaigu tokatu loteria, baina ez dago jai hobia; hau da gure suertia!* Horrez gain, beste hiru esaldi hautatu dituzte pegatinak egiteko –60 euro bakoitzak–: *Andramaixetan ez petral-*



Yera Sanchez aretxabaletarra Andramaixetako kartelarekin.

M.A.

du, jaixek direla eta, burue galdu?–Julen Abasolo–; *Andramaixetan nahastu baina nor zaren ez ahaztu* –Idurre Arbulo–; eta *Andramaixetan bapo, zatarrak be guapo!* –Jon eta Xabin Arriola–.

HAINBAT ERATAKO KONTZERTUAK
Aretxabaletarako Gazte Ekimena, berriz, txosna inguruko egitaraua gertatzen dabil. Astelehenean egin zuten batzarra eta dagoeneko ekitaldi gehienak lotuta dituzte.

Azken urteotan arrakasta izan duten ekitaldiak izango dira, tartean Mozkorrenaren Igoera jaiak hasteko eta Street Boulder saioa. Eta berrikuntzak egongo dira: txokolate-jana sokamuturra aurretik, esaterako.

Kontzertuei dagokionez, indartsuena bezperan izango da, zehaztu barik oraindik; 16an herriko taldeak izango dira protagonista eta azken egunean Egurra ta Kitto! etorriko da ska doinuekin.

EUSKARA > MERKATARITZA

Merkatariekin euskara
erabiltzeko dei egin dute

Udalak eskaintzen dituen laguntzen berri emateko eskuorria banatu dute asteen

M.A. > ARETXABALETA
Egin eta eragin euskaraz plazerra delako! Ileoarekin merkataritzan euskara bultzatzeko kanpaina jarri du abian Udaleko Euskara

Zerbitzuak. Horren berri ematen duen eskuorria banatu dute asteen merkataritza-ostalarien artean, eta herritarrek ere jasoko dute.

Helburu bi ditu abian jarritako kanpaina horrek: batetik, herritarren hausnarketa eragin gura dute; zein hizkuntzatan kontsumitzen duten, lehen berba zein hizkuntzatan egiten duten... galdarak jaurtita: "Pentsatu duzu inoiz zurea dela lehenengo hitza eta zuk zeuk egiten duzula bidea?".

Eta bestetik, Udalak merkatariei eskaintzen dizkien laguntzen berri jaso dute: testuen itzulpen eta zuzenketak; dirulaguntzak; merkataritzan erabiltzeko ereduen euskarazko bertsioak (fakturak...) eta beste hainbat.

Kanpainak hainbat pauso izango ditu, gehienak herritarrei bideratuak. Era berean, merkataritza-ostalariei hizkuntza alorrean zerbitzua emateko bide berriak urratu gura dituzte.

KIROLAK > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

Batzar orokorra egingo du
UDAk gaur Arkupen

M.A. > ARETXABALETA
Ohiko batzarra du gaur Aretxabaleta Kirol Elkarteak Arkupen (18:00). Bazkide guztiek dute gonbidapena bertaratu eta elkartearen azken berriak jasoitzeko.

Bukatuta dagoen denboraldiaren gaineko hausnarketa egingo dute, lehenengo, eta diru kontuak zelan geratu diren jakinarazi. Gero, 2010-2011 denboraldia aurkeztuko dute, eta aurrekontuaren berri eman ondoren onartu. Bukatu aurre-

tik zuzendaritzako kideei galdarak eta eskaerak egiteko aukera izango dute bazkideek.

Gainera, *Jokalaritza oso-oso* sariaren banaketa egingo dute batzarrean. Dagoeneko hiru garren aldiz banatuko dituzte sariok eta UDA osatzen duten talde guztietako kirolariek jasoko dute: futbola –maila bakoitzeko jokalaritza batek–, areto futbola, pilota eta karatea. Hainbat ezaugarri eta balio hartu dituzte kontuan sarituen aukeratzeko orduan.



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- HaziakMitarte 7 behea
ARETXABALETA

Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAJon Díaz
HarakinaLoramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

MUSIKA > 'ERREKAN GORA'

Social Distortionen baxuak joko du etzi

Hardcore eta punk-rock ukituak dituen Five Alarm Fire taldeak kontzertua eskainiko du Gernika plazan, 'Errekan gora' kultura egitarauaren harira

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Aurrera dihardu Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako *Errekan gora* ekimenak. Oreak Tx, Bostarte eta kontzertu liriko instrumentalaren ondotik, asteon erabat ezberdinak diren bi emandirekin dator egitaraua: bihar, zapatua, herriko Amuska elkar-

teko bazkideek sortutako Ausartak antzerki taldearen estreinaldia egongo da; eta etzi, domeka, kontzertu berezia.

KONTZERTU BAKARRA

Social Distortion talde amerikarraren baxu-jotzaile ohi John Maurerrek proiektu berria aurkeztuko du, Gernika plazan. 19:30ean hasiko da Five Alarm Fire taldearen kontzertua. Taldeak Euskal Herrian egingo duen musika emanaldi bakarra da Eskoriatzakoa.

Amerikako punk-rockeko talde garrantzitsuenetarikoan 20 urte luzez baxu-jotzaile moduan ibili ostean, 2004an utzi zuen Maurerrek Social Distortion; hain justu ere, esandako taldeak *Sex, love & rock-and-roll* izeneko

diskoa grabatu ostean. Deskanstatu egin nahi zuen, eta familiaz gozatu. Sei urte pasa dira ordutik hona eta musikara itzultzea erabaki du ostera ere musikariak.

Proiektu berrian Green Day taldeko Billie Joe Amstrongen laguntza izan du. Aurten, Social Distortionen *Sex, love & rock-and-roll* lanaren produktore Cameron Webbekin hainbat kantu grabatu ditu, laster EP formatuan argitaratuak izango direnak. Maurerren asmoa da bere zigilua, Slip Record, berpiztea; esandako lana eta Five Alarm Fireren etorkizuneko singleak argitaratzea.

Hardcore eta punk-rock ukituak dituen taldeak aho zabalik utziko du bat baino gehiago domekan.



Fire Alarm Fire taldeko kideak

GOIENKARIA

UDALA > POLITIKA

Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzak kargua utzi du

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaleko osaeran aldaketak daude asteotan. Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzak esandako kargua uzteko idatzia aurkeztu zuen eta joan den eguaztenean egindako ezohiko osoko bilkuran eskaera hori onartu egin zuen udalbatzak.

2007an sartu zen Okarantza Udalean. Eskoriatzako elizateetan dauden beharrei eta sortu diren egoerei erantzuteko jardueraz arduratu da, horien auzo alkateekin gai komunak landuz, beharrak aztertuz eta egitekoak koordinatuz. AP-1 autobidearen obrek Marinen, Zarimutzen, Mazmelan eta Apotzagan eragindako kalteek eta Diputazioak egin beharreko ordainek lan handia eman diote agintaldian kargua utzi berri duen zinegotziari.



Leire Okarantza.

GOIENKARIA

2007ko udal hauteskundeetarako Elizateek aurkeztutako hautagai zerrendari kasu eginez gero, Maringo auzo-alkate Unai Salaberriari dagokio orain zinegotzi kargua.

UDALA

Luis Ezeizako etxebizitza, esleitu barik

M.B. > ESKORIATZA

Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen etxebizitzaren erabilera pribatua esleitzeko hasitako espedienteaz aztertuta eta lehiaketa eginda, kontratazio mahaia inor ez onartzea erabaki zuen, eskatzaileetako batek ere ez zituelako betetzen jarritako baldintza guztiak.

Hori horrela, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, uztailaren 8an izandako osoko bilkuran udalbatzako kideen aldeko botoarekin erabaki zen esleitu gabe uztea Luis Ezeiza Herri Eskolan dagoen etxebizitzaren erabilera.

> GAZTEAK

Gaur arratsaldean egingo dute skate jaialdia, eta bi adin multzotan lehiaketa ere izango da

Herriko tren geltoki zaharrean dagoen skategunean jaialdia egingo dute gaur, egubakoitza, arratsaldean. Lehiaketa egingo dute 18:00etan, bi mailatan: 12 urtetik beherakoena, lehenengo, eta 13 urtetik gorakoena, geroago. Irabazleek skate materiala lortuko dute. Uztailaren 3an egitekoak ziren ekimen hori, baina gunearen egoeragatik atzeratzea erabaki zen.

> ERRETIRATUAK

Herriko 80 urtetik gorakoendako merienda egingo dute eguaztenean Elizoste elkartean

Urteroko ohiturari jarraituz, Olazar erretiratuen elkarteak herriko 80 urtetik gorakoendako merienda antolatu du. Aurten ere Elizoste elkartean egingo dute. Eguaztenean, uztailak 21, izango da 19:00etan.

> GAZTEAK

Udaeroren harira, datorren astean azken jaia eta kostara irteera izango dute herriko gaztetxoek

Udaero azken txanpan sartuko da datorren astean. Astelehenean, azken jaia izango dute gaztetxoek Aretxabaletako gaztelekuan; eta uztailaren 22tik 25era, kostara joango dira Aretxabaleta eta Arrasateko gazteekin batera; besteak beste, gaubela ahaztezinak izango dituzte, eta hamaika jolasez disfrutatzeke aukera paregabea.



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**

943 71 40 63

OSPAKIZUNAK > HERRIKO JAIAK

Hamar talde nor baino nor gehiago gisatu onena egiteko

Atzo hasi eta domeka arte izango dira jaiak; gaur, III. gastronomia lehiaketa egingo dute

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Gisatu onena nork prestatu. Hori izango da aurtengo gastronomia lehiaketaren erronka. Gisatu lehiaketan hamar taldek eman dute izena –denera, 26 lagun–. Gaztetxe aurrealdea sukalde bilakatuko da gaur, 09:30ean. Hiru ordu izango dute sukaldariek

gisatua prestatzeko: 12:30erako bukatuta egon beharko du. Ondoren, sari banaketa hasiko da eta 13:00etan, dastatzea.

Lanerako suak eta mahaia zozketa bidez erabakiko dira lehiaketa hasi baino lehen.

Gainera, gaur lore lehiaketa-ko sariak ere emango dituzte.

LORE LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Balkoi eta leihoetako XIV. lore apainketa lehiaketaren sari banaketa ere gaur izango da, arratsaldeko ordu bata baino zertxobait lehenago. Aurtun bi lehenengo sari banatuko dituzte. Irabazleak izan dira: Soraia Alonso eta Mañarieta 9, 10, 11, 12 eta 13ko bizilagunak –Estitxu Otaegi, Iñigo Alonso, Goretti Igartza, Naiara Cuevas eta Izar Urteaga.

Orain arte bi sari zeuden: alde zaharreko onena eta alde berriko onena. Aurtun, balkoia edo leihoa nongoa den kontuan hartu barik eman dira sariak, bi lehenengo sari.

BARRAKEN PREZIOA

Barraketan buelta bat ematea 1,20 euro kostako da; eta bost buelta, 5 euro. Domekan, prezio berezia izango du: buelta bakoi-tza euro bat izango da.

HEZKUNTZA > HELDUAK

Gaueko taldean euskara ikasteko izenematea zabalik

A.E. > ANTZUOLA

Datorren ikasturteari begira egindako deialdia da. Gaueko taldean euskara ikasi nahi dutenendako izenematea zabalik dute dagoeneko. Urrian hasiko dituzte eskolok, eta izena eman daiteke irailaren 15era arte.

NON EMAN DAITEKE IZENA?

Interesatuak udaletxean edo liburutegian eman beharko dute izena irailaren 15a baino lehen, astelehenetik egubakoi-tzera, bulegoetako ordutegian.

Ikasturtea urritik ekainera arte izango da, orain arte bezala, 210 ordu ingurukoa.

Arduradunek adierazi digute datorren astean banatuko dituztela etxeetan informazio orriak; han azalduko dute eskolek ze ordutegi izango duten.

LEHENENGO PROFILA

Orain arte bezala, oinarritzko maila erakutsiko dute; baina, gainera, aukera egongo da lehenengo profila ateratzeko.

Taldeek gutxienez zortzi pertsonakoak izan behar dute. Adierazi digute aurtun oso gustura ibili direla, batez ere ikasleen parte-hartzea oso ona izan delako. Gaueko euskara eskolak Olaran etxean ematen dira.

25 lagun Pirinioetan izan dira Arrolarekin

Aste bukaera zoragarria izan zuten Arrola mendi taldeko kideek: eguraldia lagun izan zuten, eta parajea, zoragarria. 25 lagun joan ziren Pirinioetara Antzuolatik. Zapatuan Selva de Ozatik Candanchura egin zuten, zortzi orduko ibilbidea. Estanes lakuan bazkaldu zuten, eta baita bainua hartu ere. Canfranc geltokian pasa zuten gaua. Domekan, bi taldetan banatuta ibilbide motza eta luzea egin zuten. Luzea egin zutenak Moletara igo ziren -2.576 metro.



ARROLA MENDI TALDEA

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

Etxeko berezitasuna:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Jai zoriontsuak guztioi!

Kalebarren 7. Tel.: 943 78 62 45 ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Zorionak
Antzuola!

Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34



GOZOTEGIA - OKINDEGIA - KAFETEGIA

Ondo pasa jaietan!

PRODUKTU EZBERDINAK
ESKAINTZEN DIZKIEGU GURE BEZEROEI

KALEBARREN, 18 - ANTZUOLA - 943 76 62 94
OLARTE, 12 - ARRASATE - 943 79 81 56
DURANA, 2 - ARETXABAETA - 943 79 07 88

LARREA

TABERNA

Ondo pasa jaixetan!

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Zorionak, guztioi!

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

HORTZ KLINIKA

Ana Sainz Malkorra
Mediku estomatologoa
Elkargokide zk.: 20000437

Odontologia orokorra • Endodontziak
Periodontzia eta inplanteak • Proteziak

ZORIONAK, ANTZUOLAR GUZTIOI!

Herriko Plaza 4, beheka 20577
Antzuola Tel.: 943 78 71 69



Santa Marina, Aixolako eliza, XVI. mendekoa da.

ALEX MENDIKUTE

JAIK > AUZOAK

Santa Marina jaiak Aixolan eta Arriolan oraingo asteburuan

Gaur, barikua, bertso afaria izango da Aixolako plazan, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaioko pilotaleku ondotik lehenengo bidegurutzea eskumata hartu eta bidea bi kilometro pasatxo jarraituta, Aixola eta Arriola auzoetara iritsiko gara. Aste bukaeran Santa Marina jaiak ospatuko dituzte bertan. Hain zuzen ere, Aixolako eliza, XVI. mendekoa, Santa Marinari eskainitakoa da. Arriolan ez dago elizarik, baina, esan bezala, bi auzoek bat egiten dute uztailaren 18ko Santa Marina ospakizunaren inguruan.

Egitarauari dagokionez, gaur, barikua, bertso afaria izango da Aixolako plazan, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolari ezagunekin. Izenematea dagoeneko itxita dago; antolatzaileek emandako informazioaren arabera, 95 lagun batuko dira afarian.

BIZIKLETA LASTERKETA BIHAR

Bihar, zapatua, meza izango da 12:00etan. Jesus Mari Elexalde abadeak esango du meza Santa Marinan. Ondoren, 13:00etan, bizikleta lasterketa jokatu da

Ibaratik Aixolara bitartean. Txikienez ibilbide motzagoa izango dute. Arratsalderako, berriz, mus eta briska txapelketak iragarri dituzte, 17:30erako, eta, ordu berean, Aixolatik Arriolara kalejirari joango dira eta bitartean *Altxorraren bila* izango da. Jarraian, 19:30ean, kanpai jotze erakustaldia eta gauean, Laja eta Narbaiza II.a trikitilariekin dantzaldia; goizaldean, txokolata.

Azkenik, domekan, meza eguerdian eta arratsaldean, 18:00etan, umeendako jolasak.

Gaur egun Aixolan eta Arriolan 57 lagun bizi dira. 14 baserri eta bost etxe dira aipatutako bi auzoetan.



GOIENKARIA

Postal lehiaketa deitu du Txirritolak

Ohikoa denez, Txirritola euskara elkarteak udako postalen lehiaketa deitu du aurten ere. Bereziki hilabeteotan kanpora doazenendako bideratuta dago lehiaketa eta, besteak beste, originaltasuna eta euskara maila izango dituzte kontuan irabazlea erabakitzeko orduan. Irailaren 15era arte dago postala helbide honetara bidaltzeko aukera: Txirritola euskara elkarte; kultura etxea; 01160; Aramaio. Irabazleak bi lagunendako afaria eskuratuko du Aramaioko jatetxe baten.

> UDALA

Euskara ikastearren edo Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzearen dirulaguntzak

Euskara ikasteko edota lantzeko dirulaguntzak emango ditu Aramaioko Udalak. Edozein euskaltegitan ikasteagatik matrikularen %80 jasotzeko aukera izango da, baldin eta %80ko asistentzia ziurtatzen bada. Era berean, Udako Euskal Unibertsitatean parte hartzen dutenek ere aukera daukate dirulaguntzak jasotzeko. Argibideak udaletxean, 945 44 50 16 telefonoan.

> KULTURA

'Zuiako Koadrilari begirada bat' argazki lehiaketa deitu dute; lanak urriaren 16ra arte jasoko dituzte

Zuiako Koadrilak argazki lehiaketa deitu du. Partaideek Zuiako udaletan ateratako argazkiak baino ezin izango dituzte aurkeztu. Irabazleak 300 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 150 euro eta trofeoa.

Era berean, Aramaioko irudi onenarendako ere saria izango da: 75 euro eta trofeoa. Urriaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea. *Zuiako Koadrilari begirada bat* izenburupean, lehiaketaren 8. ekitaldia da aurtengoa. Edozein argibidetarako 945 43 01 67 telefono zenbakira jo dezakezue.



Aramaioko irudi bat.

EUSKAL HERRIA

> KINTADA

1945ean jaiotako aramaiorrek irteera egingo dute irailaren 18an Bizkaiko kostaldera

1945ean jaiotako aramaiorrek egun osoko irteera iragarri dute datorren irailaren 18rako. Hain zuzen ere, Bizkaiko kostaldera joango dira. Bazkaria Sukarrietan egingo dute.

Izena emateko epea uztailaren 31ra arte dago zabalik. Intere-satuek 60 euro ordaindu behar dituzte Euskadiko Kutxaren kontu honetan: 3035 0001 50 0011 148540.

JENDARTEA > ERRETIRATUAK

Alaiak elkartekoak Santillana del Marrera doaz hurrengo zapatuan

Plaza guztiak bete dituzte Aramaioko erretiratuek, eta 60 lagun joango dira goizetik Kantabriara

geunden jatetxean ez zegoelako horrenbeste leku. Beraz, autobus bakarrean joango gara hurrengo zapatuan".

Egun osoko irteera izango da. Goizeko 07:30ean aterako dira kiroldegia- ondotik, eta Trapagaran aldean egingo dute lehenbiziko geldialdia, gosaltzeko. Kantabrian, Santillanako kolegiata eta Altamirako koben erreplika ikusiko dituzte, besteak beste. Han bazkaldu eta iluntzean itzuliko dira.

URRIAN, GERNIKARA

Santillanako irteera izango da abuztuko oporren aurretik Alaiak elkarteak antolatzen duen azken ekitaldia. Ohi denez, urriaren 25ean, Gernikako azokara joango dira, eta Lekeition bazkalduko dute.

E.M. > ARAMAIO

Dagoeneko ez da geratzen plazarik datorren zapatuan Alaiak elkartekoek Kantabriara, Santillana del Marrera iragarritako irteerarako. Hain zuzen, 60 lagunek eman dute izena aipatutako irteerarako. Javier Uriarren Alaiak elkarteko presidentearen hitzetan, "bestetan bi autobus antolatu ahal izan ditugu, baina oraingoan mugatuta

ELGETA > IBILGAILUAK

Hil bukaeran abian ibilgailuen arautegia

Martitzenean onartu zuten, Elgetako Abertzaleak taldeak jarritako alegazioak baztertuta

MIRARI ALTUBE > ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkuran onartu zuten ibilgailuen arautegia Udal Gobernuaren aldeko botoekin. Elgetako Abertzaleak taldeak jarritako lau alegazioei ezezkoa eman zieten eta talde horretako zinegotziek ez zuten onarpena babestu.

EZEZKOEN ARRAZOIAK

Oxel Erostarbe alkateak ezezkoen arrazoiak azaldu zituen. Berraondoko sarrera libre uzteari dago-kionez, horrek zirkulazioa sor-

dezakeela Salvador eta Lasao kaleetan arrazoitu zuen. Lasao kalean aparkatzen uzteari ere ezetza eman zioten, "hainbat eragozpen sortzen dituelako Salvador eta Lasao kaleotan". Medikua-ren kontsultara joateko San Roke kalea zabalik izatearen gainean esan zuen arautegian jasota dagoela ondoezik daudenek baimena dutela autoz joateko, eta gaineratu zuen pibotea zabalik uzteak hainbat arrisku sortzen dituela San Roke kalean, "eskolara joateko pasoa delako".



Erdigunean dagoen aparkalekua; arautegia indarrean sartzen denean aparkalekuetan utzi beharko dira autoak. LARRAITZ ZEBERIO

Kamioiak baimen berezirik gabe ibiltzeko topea 10 tonara igotzeko eskaerari ere ezezkoa eman zioten, zorua apurtu dezaketelako. Eta Salvadorren erosketak egin bitartean aparkatzeko eskaerari ere uko egin zioten "oinezkoen kalea" dela esanaz eta "arautegiak debekatu" egiten duela.

ABUZZUA, HILABETE APROPOSA

Arautegia onartuta hilabete bukaeran jarriko dutela abian iragarri zuten, "posible bada, behintzat". Isunen kontua dago lotzeko oraindik, baina Jaurleri-tzarekin berba eginda daukate-la argitu zuen alkateak, "eurak egiten direlako kargu herri txi-

kietan". Abuztua, gainera, hila-bete aproposa izan daitekeela arautegia abian jartzeko uste dute, "herritarrak poliki-poliki ohitzen joateko". Baina aurretik, mandoak behar dituzten herritar guztiekin egongo dira. Hala, sei hilabeteko probaldiari emango diote hasiera.

16 neska-mutiko Etor Garateren gidaritzapean irristaketan ikasten

Eguaztenean elkartu ziren lehenengo aldiz Udalak Uda Kirola kanpainaren barruan antolatutako irristaketa ikastaroko parte-hartzaileak. Patinak jantzi eta Etor Garateren gidaritzapean hainbat ariketa egin zituzten. Bakarka edo binaka zirkuitu ezberdinak egin zituzten. Biraketa azkarak, motelak, gelditzen ikasteko ariketak... maila ezberdinak izan arren, gurasoen eta Garateren laguntzaz denek gozatu zuten. Erorketa bat edo beste ere izan zen, baina laster ahazten diren horietakoak guztiak.



L.Z.

> ERRETIRATUAK

Podologoaren uztaileko kontsulta hilaren 22an, eguna, izango da

Elgetako erretiratuek herrian bertan podologoaren zerbitzua izango dute uztailean ere. Ohi-koa den moduan txanda hartzea ezinbestekoa izango da, hona-koan ere podologoak ez ditu-eta 22 bat lagun baino gehiago arta-tuko. Eguneko zentroan hartu-ko ditu elgetarrak 15:00etan hasita. Hilero moduan, txanda hartzeko lehenbailehen deitu behar zaio Nati Arrietari. Haren telefono zenbakia hona-koa da: 943 76 80 77.

Salvadorpe erretiratuen elkartetik jakinarazi dute abuz-tuan ez dela podologoaren kont-sultarik egongo.

> INTERNET

Podologoaren uztaileko kontsulta hilaren 22an, eguna, izango da

Astlehenean, hilaren 19an, egingo du uztaileko bigarren bisita KZguneko dinamizatzaileak. Aurrekoa bezala, arratsaldeko saioa izango da: 16:00etatik 20:00etara.

Hainbat ikastaro egiteko aukera emango du eta KZgunera hurbiltzen den 16 urtetik gorako edozeinek izango du bi orduko iraupena duten saioetan parte hartzeko aukera.

Sare sozialak, Skype, Google tresnak, Youtube, Softonic, Flickr, Picnik, JayCut, PayPal, Ubuntu, Audicity, Draw eta Twitter erabiltzen ikasi nahi izanez gero, hemen aukera.

LEINTZ GATZAGA > PILOTA

Gazteen finalak izango dira jaietan

Hainbat partidu jokatu dituzte domeka goizetan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Domeka goizetan jokatu duten Dorletako Ama pilota txapelketa bukatu da. Mauri Zubillaga entrenatzaileak da txapelketa horren bultzatzaile

lea eta ikasturtean entrenatzen jardun duen herriko pilotari gazteei jokatzeko aukera eskaini gura izan die. Sei saio izan ditu txapelketak eta orain finalak jokatzea

geratzen da. Andramaixetan izango dira final horiek, irailaren 5ean.

GATZAGAKO PILOTARI ASKO

Finalak jokatuko dituzten pilotarien izenak eman ditu Zubillagak. 6-7 urtekoak: Alonso (Gatzaga) eta Zubia (Eskoriatza), Garitano eta Errastiren (Arrasate) aurka. 9 urtekoak: Biteri anaiak (Marin), Uribetxebarria eta Davilaren (Aretxabaleta) aurka. 10 urtekoak: Oñaderra (Gatzaga) eta Oñate (Eskoriatza), Elkorobarrutia (Arrasate) eta Salaberriaren (Marin) aurka. 12 urtekoak: Ajuria eta Uri-

zar (Gatzaga), Bellido eta Ruizen (Amurrio) aurka. 13 urtekoak: Urtzelai anaiak (Eskoriatza), Llodio eta Muruaren (Arrasate) aurka. 16 urtekoak: Barandiaran eta Aizpuru (Gatzaga), Axpe eta Urtzelaren (Eskoriatza) aurka.

Gazteen mailan, Deba arroko txapelketako errebantxa jokatuko dute: Zubizarreta anaiak (Eskoriatza), Arabaolaza eta Etxagibelen (Arrasate) aurka. Eta helduak gonbidatuta datoz: Mendizabal (Antzuola) eta Bolinaga (Arrasate), herri arteko txapelkun aurka Larrañaga eta Uzkudun (Azpeitia).

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

MENDIKO LASTERKETAK > 'EHUN MILIAK' ULTRATRAIL PROBA

Ibarreko 21 lagun, proba gogorrenean

Beasainen hasiko dute, gaur, 167 kilometro dituen iraupen luzeko mendi lasterketa

Lasterkariak gaur gauerdian igaroko dira ibarreko lurretatik, Gorla ingurutik

XABIER URTZELAI > BERGARA

Iritsi da eguna. Gaur, egubakoi-tza, 18:00etan hasita ibarreko 21 lagunek –seguru dagoeneko norbaitek atzera egin duela– hasiko dute Euskal Herriko mendietan inoiz egin den iraupen luzeko probarik gogorrena, *Ehun miliak*. Balentria batzuetarako, erokeria beste askorendako, Beasainen hasi eta amaituko duten proba egiteko mendizaleek 48 ordu izango dituzte.

Eta tartean, oinetan babak, giharretako arazoak, deshidratazioa, lo falta, erorikoak eta beste kalamitate asko gainditu beharko dituzte mendizaleek; eta kontraesana da, baina zailtasun horiek gainditzean dago grazia.

HAS DADILA, BEHINGOZ

Urtarrilean izena eman zutenetik zazpi hilabete pasa dira, eta

dagoeneko proba hasteko desatzen daude gehienak, hasi, amaitu, eta ahaztu: "Mendira gustuz joaten gara, eta eskerrak, baina dagoeneko luze ere egiten ari zaigu. Jendeak galdetu egiten du ea entrenamenduak zelan doazen, asteburuetan ordu asko eskaini dizkiogu ondo entrenatzeari, beste mendi proba batzuetan ere izan gara... proba hasi eta amaitzeko desatzen nago, eta udari behar den moduan heltzeko, zaletasun honetatik ere oporrak hartzeko", adierazi digu ibarreko 21 ordezkarietako batek, Arkaitz Arregi arrasatearrak.

HIRU HANDIAK, ENTRENAMENDU

Arregi Hiru handiak proban egon zen ekainean. Entrenamendu modura hartu zuen 100 kilometroko mendi zeharkaldia, eta Xabier Iñurritegi oñatiarrak ere gauza bera egin zuen: "Gustura amaitu nuen, 17 orduren bueltan ibili

ginen, baina, normala den moduan, Araiara nekatuta iritsi ginen. Helmugan, *Ehun miliak* proban egin beharreko lanaz akordatu ginen, beste 67 kilometro izango ditugula egiteko, baina motibazio kontua da dena, eta neu, behintzat, oso motibatuta nago". Iñurritegik bi urte daramatza iraupen luzeko probak egiten, badaki Chamonix-eko proba amaitzea zer den (The North Face Ultra-trail du Mont Blanc), eta horrelako proba bat etxean egin behar zutela jakin zuenean ez zuen birritan pentsatu: "Baina *Ehun miliak* gogorragoa izango da, bai distantzian, bai maila igo eta jaitsi beharreko desnibelean ere". Izan ere, atletek gaurtik domeka arte 11.000 metro igo beharko dituzte, eta 11.000 metro jaitsi.

ERREFERENTZIA FALTA

Ehun miliak egiteko orduan, mendizaleek gainditu beharreko zail-



Hiru handiak proban ateratako argazkia, Muruan (Araba), lasterketa hasi berri. Argazkian, Mark...

tasunetako bat da ez dutela beste edizio batzuetako erreferentziarik. Esaterako, *Hiru handiak* probaren ibilbidean aurten egin duten noranzko aldaketak erakutsi du hori: "Itsuan irtengo gara denok, eta, hain justu, horregatik, jendea oso lasai irtengo dela esango nuke. Lasterketako lehenengo zatia ez da gogorra. Gehiago esango dut, 100 kilometroko proba izango balitz, ez luke aparteko gogortasunik izango. Baina bigarren zatian hasten da gogorrena, eta indarrak gorde beharko ditugu", adierazi du Iñurrite-


gik. Eta ondo dabil, 100. kilometroan Txindoki eta 140. kilometroan Aizkorri igo beharko dute-eta: "Joan den astean ibili ginen paraje horietan, Aizkorri eta Aratz inguruan, eta zera komentatu genuen, domekan itxura ederrarekin igoko ditugula aldapa horiek, begiak oker, seguru".

TOLOSAN LO-KULUXKA

Ibilbidean zehar mendizaleek izango dute lo-kuluxka egiteko aukera: "Tolosan bizpahiru orduz atseden hartzeko asmoa dugu. Dutxa bat hartu, lo apur bat egin eta berriro aurrera. Ez dakiguna da atseden hartu ostean gorputzak zelan erantzungo duen berriro ere martxan jartzerakoa. Hori ere entrenatu egiten da, eta guk ez dugu horrelakorik egin".

Asteburuan lasterkariak animatzeko asmoa duenak jakin behar du gaur gauerdian Gorla-ko Altzasu elkartetik igaroko direla lasterkariak, eta zapatu eguerdian Txindoki inguruan ibiliko direla atleta asko. Hortik aurrerakoak...

'Ehun miliak' probaren profila



Jon Rivero Euskadiko mendiko bizikleta txapelketan lehena

Joan den asteburuan jantzi zuen Jon Rivero bergararrak Euskadiko mendiko bizikleta txapelketaren maillota, Eredian. Bistan da Lokatzakoari errepideko bizikleta-ekin egindako lanak mendirako ere balio izan diola.

Bergarako txirrindularien asteburu ona, baina, ez zen garaipen horretara mugatu, errepideko bizikletarekin Mikel Aristi lehenengo postuan helmugaratu zelako Zumaian. Unai Retolazak, gainera, Bizkaiko itzulia korritu zuen Markinako taldean.



LOKATZA

> MENDIA

ESAI Ten mendi martxa Elgetan amaituko da

Euskal selekzioaren aldeko taldeak mendi martxa antolatu du abuzturako, eta martxa horren azken etapa Elgetan amaituko da, abuztuaren 4an. Hala, ekitaldi hori jai batekin amaituko dute ESAI-Tekoek.

Egun horretan, 11:00etan mendizaleei ongiatorria egingo diete herrian bertan, eta 13:00etan Euskal Herriko trontza txapelketa jokatu dute. 14:30ean, berriz, 200 lagunendako tokia egongo den herri bazkaria egingo dute, eta arratsaldean, bolo txapelketa eta triki poteoa egingo dute.



el Elortza eta gaur *Ehun milia* proban egongo den Arkaitz Arregi arrasatearrak.

x.u.

Ehun milatan izango direnak

ANTZUOLA
> Luis Urigoen Irusta

ARAMAIO
> Iñigo Eriz Unzueta

ARETXABALETA
> Jose Miguel Mediavilla

ARRASATE
> Arkaitz Arregi Sagasta
> Zigor Jimenez Benito
> Ander Ugalde Etxebarria

BERGARA
> Jose Inazio Balentziaga
> Aitor Elkoro Fernandez
> Xabier Elkoro Fernandez
> Xabier Uribesalgo Bikuña

ESKORIATZA
> Iñigo Biteri Pagaldai

OÑATI
> Aitzol Guridi Zubia
> Xabier Iñurritegi Alzelai
> Argider Isasti Lazkano
> Iban Isasti Lazkano
> Alberto Larrea Alava
> Jesus Odriozola Agirrezabal
> Andoni Urtaza Agirrezabal
> Iker Agirrebalzategi Guridi
> Jon Aizpeurrutia Alzelai
> Pablo Arejolaleiba Ugarte

ITURRIA: EHUN MILAK

Ibilbidea

GEHIENEZKO DENBORAK

20 km
ZUMARRAGA 5H 35"

55 km
AZPEITIA 15H 17"

77 km
TOLOSA 21H 24"

106 km
TXINDOKI 30H

132 km
ETXEGARATE 37H 47"

159 km
OAZURTZA 45H

167 km
BEASAIN 48H



GOIENKARIA

ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Maila absolutuan lehiatuko da Maialen Axpe, Avilesen

Gazte mailan Espainiako txapeldun izan berri, zapatuan nagusiekin lehiatuko da

X.U. > ARRASATE

Joan den astean Nerjan egin zuten Espainiako txapelketan pertika saltoan urrezko domina jantzita (3,66 metro) itzuli zen Maialen Axpe arrasatearra. Bihar, baina, Axpe nagusiekin lehiatuko da, Naroa Agirre eta konpainiarekin.

Arrasatekoak atletismoan profesionalki jarduten duten atletak izango ditu aurrean, eta bere marka pertsonala errepikatu,

edo ontzen badu (3,70), lehenengo zortzi edo hamar sailkatuen artean ibiliko da.

Hala, hura izango da Arrasate Atletiko taldeko ordezkari bakarra, gainontzeko atletak ez dituzte-eta Espainiakoan egoteko gutxieneko markak lortu.

Joan den astean urrea lortu zuen Axpek, baina Lore Mar ere podiumera igo zen, bere marka pertsonala sei zentimetro onduta (3,61 metro).



Maialen Axpe.

GOIENKARIA

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

UZTAILEKO ZOZKETA

Telefonia: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ELHUYAR-EN PAMPINA ETA JOKUA

Bidali KLUBA PAMPINA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



elhuyar.org/zoozorora



ESAIT-EKO KAMISETA GORRIA

Bidali KLUBA KAMISETA
[bazkide zenbakia]
5195 zkra



EUSKALTELEKO KAMISETA

Bidali KLUBA EUSKATEL
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT PACK TXURIA



Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

www.danbaka.com**DANBAKA**))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoea bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com

irailak

17izena
emateko
azken
eguna



> JAIK

Ondo pasatzeko nahi adina aukera Antzuolako jaietan aste bukaeran > 32



> IKUSKIZUNA

Shake That taldeak kaleko zirku ikuskizuna egingo du Arrasaten > 32

> IURGI

DUQUE

Ume eta gaztetxoek aisialdia lanbidetzat hartuta, Udaero eta Udaixe programetan dabil; surfzalea ere bada > 34



Amuska taldekoek antzezlan estreinatuko dute bihar

HUHEZIN

Eskoriatzako Huhezina egingo dute emanaldia 22:30ean

IKASTAROA

Antzerki ikastaro baten ondoren sortu zuten taldea

MIREIA BIKUÑA > ESKORIATZA

Eskoriatzako Amuska emakume taldeak hitzordu garrantzitsua du bihar: antzerki taldeak lehen emanaldia egingo du. Hain justu ere, *La cenicienta que no quería comer perdices* ipuinaren moldaketa taularatuko dute. Antzerki taldeko kide Eva, Mari Karmen, Emi, Caty, Elvi, Pakita, Josefina eta Nieves Huheziko areto nagusiko oholtzara igoko dira 22:30ean.

IKASTAROAREN ONDOREN

Amuskako antzerki taldea ikastaro baten ondoren sortu zuten. "Lagun talde bat etorri zitzaigun antzerki ikastaro bat antolatze-ko eskatuz. Elkarre moduan deialdia egin eta ikastaroa abian jarri genuen. Bukaeran, han ikasitakoa erakustea pentsatu genuen. Olatz irakasleak asko lagundu digu", esan digu antzerki taldeko eta Amuskako zuzendaritzako kide Nieves Galdosek.



Amuskako antzerki taldeko kideak eta irakaslea, zapatuan egin zuten entsegua hasi aurretik.

JULIO CALLEJA

Ikastaroa egin zuten bi zapatutan, egunero bi orduz. Ikasitakoa oholza gainean erakutsi nahi zutela erabaki ondoren, entseguak ugaritu egin dituzte. "Azken asteotan zapaturo elkartzen gara kultura etxean, 09:00etatik 13:00etara. Buru-belarri ibili gara estreinaldia ondo joan dadin", diote.

IPUINAREN MOLDAKETA

Lehen emanaldirako Nunila Lopezek idatzi eta Myriam Camerosek ilustratu duen *La cenicienta que no quería comer perdices* ipuina hartu dute oinarri. *Errauskine* ipuin klasikoaren ondorengo kontatzen dute; hain justu ere, Errauskine eta printzea ezkondu ondoren zer gertatzen den. "Ezkondu ondorengo bizimodua, batzuetan, guk espero bezalakoa ez dela kontatzen du ipuinak, eta horixe plazaratu gura izan digu", diote Amuskakoek.

Antzezlaneko protagonistak Errauskine eta printzea dira, baina beste pertsonaia batzuk ere agertzen dira. "Sei pertsonaia aukeratu ditugu protagonistei laguntzeko. Ipuin klasikoetako pertsonaiak dira", esan digute.

HERRITARREN LAGUNTZA

Amuskakoek laguntza izan dute antzezlanaren prestatzeko orduan. Musika ipintzeko, argiztapena egiteko eta koreografiak antolatze herriko hiru pertsonaren laguntza izan dute. "Hiru alde horiek eurek antolatu dituzte.

Gu ez gara arduratu, eta, egia esan, oso ondo egin dute. Eskerrik beroenak egin duten lanarengatik!", esan digute.

Bestalde, pertsonaia bakoitza irudikatzeko arropa gehienak etxekoak direla esan digute: "Arropa zehatzen bat erosi beharra izan digu, baina ia-ia guztia etxeko armairuetan genuen. Konponketa batzuekin moldatu gara".

BESTE EMANALDI BATZUK

La cenicienta que no quería comer perdices antzezlaneko estreinaldia egin aurretik, jaso dute beste herri batzuetan emanaldiak

egiteko gonbidapena. "Arrasateko Emakume Txokoak emanaldia egiteko gonbidapena egin digu. Akaso, beste toki batzuetara ere joango gara".

Biharko emanaldiak zer emango duen jakin barik, antzerki taldearekin jarraitzeko asmoa dute. "Akaso, beste antzezlan batzuk egingo ditugu. Baina, oraingoz, esku artean dugunarekin hasiko dugu bidea", diote.

Biharko estreinaldia irekia da. Sarrera doan da, eta, hori horrela, debagoiendar guztiak gonbidatu gura dituzte Eskoriatzako emanaldira.

IPUINA

Ezkontzaren ondorengo bizimodua

La cenicienta que no quería comer perdices helduendako ipuina Nunila Lopezek idatzi eta Myriam Camerosek ilustratu dute. Lagunen eta ezagunen artean lortutako diruari esker auto-ekoizpena egin zuten Lopezek eta Camerosek. Segituan oihartzun handia lortu zuten. Internet bidez toki guztietara zabaldu zen ipuina: foroetan, blogetan eta sare sozialetan erreferentzia da askorendako. Arrakasta ikusirik, bi egileak, ipuina oinarri hartuta, hitzaldiak ematen hasi ziren nonahi, ezkontzaren ondorengo bizitza batzuetan guk espero bezala ez dela kontatzeko.



Ipuinaren azala.

GOIENKARIA

ESANAK

"Ezkondu ondoren hasten dugun bizimodua, batzuetan, guk espero bezalakoa ez dela kontatzen digu antzezlanean"

Nieves Galdos > Amuskako kidea

"Biharko emanaldia irekia da; hori horrela, debagoiendar guztiak gonbidatu gura ditugu Eskoriatzara"

JAIK > ASKOTARIKO EKITALDIAK

Antzuolan hiru egun dituzte aurretik gorputzari astindu ederra emateko



Udalekuetan gertatutako zirkua egin zuten umek.

MIRIAN BITERI

Atzo eguerdian hasi ziren festak, udalekuetako haurrek herriko kaleetan zehar egindako zirku kalejirarekin

MIRIAN BITERI > ANTZUOLA

Domekako erretiratuen bazkariaren eta dantzaldiaren ondotik, atzo, eguena, eguerdian hasi ziren Antzuolako jaiak. Pedro Iturbe alkatearekin batera, udalekuetako umek eman zioten hasiera festei, horretarako gertatutako bertsoa udaletxeko balkoitik abestuta. Alkateak txupinazoa bota bezain azkar, plaza-ra jaitsi ziren haurrak; zirkuko



Haurrak, udaletxeko balkoitik bertsoa bota aurretik.

M.B.

partaidez moztortuta zeuden eta ikuskizuna hastear zegoen. Herriko kaleetan kalejira egin ostean, bazkaria izan zuten horiek guztiek eskolan.

MAIRUA, BERRIKUNTZEKIN

Atzokoez gain, datozen hiru egunotan ere askotariko ekitaldiak daude iragarrita herrian. Gaur, 19:00etan, esaterako, 1. mailako

afizionatuen pilota partiduak egongo dira. Zapatuan, ordu berean, Mairuaren Alardea egingo dute plazan. Aurten berrikuntzekin dator: musika pieza eta

dantza berriak estreinatuko dituzte. Etzi, 19:00etan, pintxo eta sagardo solidarioak egongo dira toki berean eta jarraian, larrain-dantza izango da.

Egitaraua

EGUBAKOITZA, 16

10:00 Txistulari taldearekin goizeresia.
11:00 Umeendako jolas-parkea.
12:00 Meza nagusia Antiguan.
09:30 Antzuolako 3. gastronomia lehiaketa gaztetxe aurrean. Aurten, gisatu lehiaketa. Antzuolako gastronomia elkarteek, auzotarrek, herriko edozein elkarte eta horretarako osatutako taldeek dute parte hartzeko aukera.
12:45 Balkoi eta leihoetako XIV. lore apainketa lehiaketaren sari banaketa. Gastronomia lehiaketaren sari banaketa.
13:00 Gisatua dastatzeko aukera izango dute gerturatzen direnek.
16:30 Jolas-parkea Herriko Plazan.
18:30 Poneyak eta zezentxoak Zurrategin.
19:00 1. mailako afizionatuen pilota partiduak pilotalekuan. Lau t'erdian: Onsalo-Mendizabal. Binaka: Larrañaga-Irureta, Mugurutza-Jauregiren aurka.
22:30 Arantza eta Pantxo taldearen saioa Herriko Plazan.
00:30 Zezensuzkoa.


ZAPATUA, 17

09:55 Kanoiak sutzea.
10:00 Txistulariekin goizeresia.
11:30 Bergarako Bandaren kalejira.
12:30 Bandaren kontzertua Zurrategin.
19:00 Mairuaren Alardea plazan. Oinarinen dantzak alardean ikusi ahal izango dira.
21:30 Herri afaria Zurrategin, Txosna batzordeak antolatuta.
22:30 Joselu Anaiak taldearekin erromeria Herriko Plazan.
24:00 Zezensuzkoa plazan.
00:15 Joselu Anaiak taldearekin erromeria Herriko Plazan.



DOMEKA, 18

12:15 Salda, erretiratuen eskutik.
12:30 Acordes navarros taldearen eskutik nafar jotak entzungai plazan.
18:00 Dragoialde txarangaren saioa Herriko Plazan eta kaleetan zehar.
18:30 Buruhandiak Herriko Plazatik irtenda.
19:00 Pintxo eta sagardo solidarioak Herriko Plazan.
20:30 Larrain-dantza.
20:45 Kiki Bordatxo eta haren taldea Herriko Plazan.
01:00 Jai bukaera plazan.



IKUSKIZUNA > KALE ZIRKUA

Belgikako Shake That taldea dago gaur Arrasaten

'On the rocks' izeneko emanaldi ikusgarria egingo dute 20:00etan Herriko Plazan

M.B. > ARRASATE

Kale zirkua gustuko dutenek hitzordua dute gaur, egubakoitza, arratsaldean, Arrasateko Herriko Plazan. *Udazabal 2010* kultura egitarauaren barruan, Shake That taldeak *On the rocks* izeneko ikuskizun dibertigarria eskainiko du, 20:00etan.

Bost kidez osatuta dagoen Belgikako taldeak zirku esperimentala egiten du. Euren herrialdeko hainbat konpainiatan ibilbide luzea egin ostean, Hans Vanwynberghe, Joris Verbeeren, Sander de Cuyper, Nino Mertens eta Gab Bondewel artistek Shake That sortu zuten, Belgika-



Belgikako boskotea.

SHAKE THAT

ko Humorologie Jaialdiarekin elkarlanean.

KOKTEL TABERNA

Bostekoak koktel taberna jarriko du kale erdian, antzerkia, erritmoa eta zapatu gauako musika nahastuko dituen ikuskizun harrigarrian. Malabareak, umorea, magia, ikusleekiko harremanak eta konbinatu gozoak uztartuz, azken belaunaldiko artista horiek azkenaldiko ikuskizun aipagarrienetarikoa aurkeztuko dute Arrasaten.

Tabernako barra da agertokia, eta zerbitzariak, ezagutzeko moduko paperak antzetzuz, istorio dibertigarriak kontatuko dituzte. Erritmo bizi-bizia duen lana, koktel taberna berria jartzeko leku onenetako baten: Herriko Plazan. Emanaldiak 45 minutu inguru irauten du.

MUSIKAIRE

Hiru hitzordu asteburuan Elorrion

Aziza Brahim sahararren kontzertua gaur eta Ruper Ordorikarena bihar

E.M. > BERGARA

Musikaire jaialdiaren barruan hiru hitzordu izango dira asteburuan Elorrion: batetik, Saharako Aziza Brahimek emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, plazan, 22:30ean. Bihar, zapatua, ordu eta toki berean, Ruper Ordorikaren txanda izango da.

DOMEKAN, KALE ANTZERKIA

Eta domekan, antzerkirako tartea izango da. Trapu Zaharra taldeak *El pisito* antzez-lana eskainiko du kalean, 19:30ean. Marco Ferrerik 1958an zuzendutako *El pisito* filmean oinarritutako antzez-lana da, eta Santi Ugaldede ezaguna, Txubio F. de Jaurregi eta Javier Barandiaran dira aktore nagusiak. Musikaire emanaldi guztiak debalde dira.



ARTasok iaz egindako erakusketa.

TXOMIN MADINA

OÑATI > ARTEA

ARTasorekin, Arantzazu arte topaleku Santiago egunean

Dozena bat postu egongo dira uztailaren 25ean Arantzazukoerloju-dorrearen aurreko plazatxoan

EDU MENDIBIL > OÑATI

Hirugarren urtez jarraian, ARTaso elkarteak antolatutako azoka izango da Arantzazun Santiago egunean, uztailaren 25ean. Kepa Elortza ARTasoko kideak argitzen digunez, elkartearen izena arbasoen arrastoak gordetzen

dituen mendigune batetik (Arantzazuko aparkalekutik ikusten dena) hartu zuten. Bospasei lagun ari dira elkartearen. Arantzazun eta Oñatin arte mota ezberdinak (artisautza, pintura, eskultura, literatura...) sustatzeko asmoz sortu zuten ARTaso, duela hiru

urte. Eta aurkezpen ekitaldia 2008ko uztailaren 27an egin zuten, Gandiaga Topagunean.

NATURA PROTAGONISTA

> Udal Gazte Bulegoa
> Sexologia Zerbitzua
> Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
> Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
> Zozketak (egubakoitzean)
> Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 17	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Domeka, 18	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Astelehena, 19	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Martitzena, 20	Ruiz	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Eguaztena, 21	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 22	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 23	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74

BERGARA

Zapatua, 17	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 18	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 19	Urrutikoetxea	Oxirondo plaza 4	943 76 11 74
Martitzena, 20	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguaztena, 21	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 22	Urrutikoetxea	Oxirondo plaza 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 23	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 17	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 18	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 19	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 20	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 21	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguena, 22	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 23	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Zapatua, 17	Agirre	Gorosarri plaza (Esco.)	943 71 48 28
Domeka, 18	Agirre	Gorosarri plaza (Esco.)	943 71 48 28
Astelehena, 19	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 20	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 21	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguena, 22	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 23	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

ESKER ONA

Iñaki Anakabe Maidagan

Oñatin hil zen, 2010eko uztailaren 8an, 79 urte zituela.

Ondra meza zapatuan, uztailaren 17an, 19:30ean, Oñatiko Agustínotan ospatuko da.

—
Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Igor Lete Aranburu

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

*Zu bezalako izarrak
ez dira inoiz itzaltzen.*

Maite zaitugu.

Zure familia.
Bergaran, 2010eko uztailaren 16an.



ESKER ONA

Maria Luisa Echevarria Zuazo

Juan Garaiyurrebasoren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2010eko uztailaren 7an, 82 urte zituela.

Ondra meza domekan, uztailaren 18an, 12:30ean Eskoriatzako San Pedro parrokian ospatuko da.

—
Une latz hauetan gurekin izan zareten guztioi, eskerrik asko bihotz-bihotzez sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2010eko uztailaren 16an.

OROIGARRIA

Santi Erostarbe Leibar

Oñatin hil zen 2010eko uztailaren 6an, 79 urte zituela.

*Gurekin orain etzauden arren
etzaitugu ahaztuko
beti alai eta barrez
aitaita ezin hobea
biloben partez jaso ezazu
besarkada ta muzu bat.*

Garikoitz, Itsasne eta Igotz, Ainhua, Beñat, Amaia eta Aimar, Aritz, Alix, Julen, Nerea, Gotzone eta Mikel, Aitor.

Oñatin, 2010eko uztailaren 16an.





Aretxabaletako **Eduardo Altubek** eta Gatzagako **Ageda Aranburuzabalak** urrezko ezteiak bete dituzte gaur. Euren seme **Edu Altubek** eta errain **Nerea Gartzia**k zilarrezkoak beteko dituzte hilaren 20an. Guztiok elkarrekin ospatuko dute. Dorletako Santutegian egingo dute elizkizuna, eta Gatzagan bazkalduko dute. "Zorionak, lauroi, etxeko guztion partetik!".



Arrasateko **Manolo Gartzia** eta **Erika Alvarez** bihar ezkonduko dira Aretxabaletako Andra Mari elizan. Ospakizuna Oñatiko Etxe Aundin egingo dute. Familiaren partetik, "zorionak, bikote, eta ondo-ondo pasatu bihar".



Egoitz Herce eta **Itziar Lopez** bihar ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Etxekoek eta lagunek mezua bidali diete: "Oso ondo pasatu bihar, ezteibidaian eta aurrerantzean. Oso zoriontsu izan zaitezte".



Oñatiko **Ana Olalde** eta Hernaniko **Felix Esnaola** uztailaren 10ean ezkondu ziren Oñatiko udaletxean. Bazkaria Etxe Aundi jatetxean egin zuten. Etxekoek zorion agurra bidali diete: "Zorionak, bikote. Zoriontsu izan zaitezte".

hildakoak

- **Iñaki Anakabe Maidagan.** Oñatin, uztailaren 8an. 79 urte.
- **Felix de Arcocha Jimenez.** Arrasaten, uztailaren 9an. 63 urte.
- **Pilar Odriozola Igartua.** Oñatin, uztailaren 11n. 85 urte.
- **Miren Urizar Irasuegi.** Arrasaten, uztailaren 12an. 77 urte.
- **Rufino Peña Etxebarria.** Aretxabaletan, uztailaren 12an.
- **Ezequiel Benjamin Anton Barron.** Bergaran, uztailaren 14an.
- **Maximo Lezeta Madinabeitia.** Eskoriatzan, uztailaren 14an. 93 urte.

URTEURRENA

Jabi Loiti Lizartza

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesus Arreseigor Aranzabal

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Behar dugunean
ezingo gara babestu
zure beso goxoetan,
baina hor zaude
ezkutatuta gure
bihotzeko txokorik ederrenean.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Bixente Kerejeta Barrutia

Gasteizen hil zen 2009ko uztailaren 19an, 64 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza astelehenean, uztailaren 19an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Gure bihotzean izango zaitugu beti.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Joxe Mari Urrutia Ibabe

Arrasaten hil zen 2009ko uztailaren 25ean.

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 18an, 11:00etan, Arrasateko Garagartza auzoko San Migel elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Severo Ceciaga Lazpiur

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailaren 18an, 11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropenaren Amaren elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Uztailak 16-22

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa

eguziteneko eguerdia baino lehen.

Posta elektronikoa: kultura@goiena.com

Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Erakusketa



ESKORIATZA

> Eskoriatzako, Arrasateko eta Oñatiko egileen margolanak ikusgai daude

Hainbat herritarren erakusketa ikusgai dago Ibarraundin. Denetara, 30 egileren lanak daude; gehienak eskoriatzarrak dira, baina badaude baita Arrasateko eta Oñatiko parte-hartzaileak ere. Uztailaren 30era arte dago zabalik.

Musika



BERGARA

> Bilboko Travellin' Brothers taldeak blues emanaldia egingo du

Euskal Herriko blues talde garrantzi-tsuenentzat dute Travellin' Brothers. Hiru disko aterata dituzte eta zuzeneko emanaldietan indar ikaragarria dute. Denetariko blues estiloak jorratzen dituzte. Espoloian joko dute gaur (22:30).

Antzerkia



ARETXABALETA

> 'Superplast' kale-antzerki sariduna egingo du Hortzmugak egunean

Euskarazko saileko 2009ko Max saria irabazi zuen Hortzmugak *Superplast*-ekin (hilak 22, Herriko plazan, 19:00). *Superplast* familiak Zabor Jaun gaiztoari aurre egingo dio, Aretxabaletan izango diren ikusle guztien laguntzarekin.

ELORRIO

> Musikairen joko du Ruper Ordorikak bihar, zapatua

Musikaire egitarauaren barruan, *Haizea garizumakoa* delako diskoko abestiak joko ditu Ruper Ordorikak. Berarekin jardungo dute Hasier Olabeagak (bateria), Arkaitz Minerrek (gitarra, mandolina eta biolina) eta Lutxo Neirak (baxua).

Bihar, zapatua, plazan, 22:30ean.

Antzerkia

ESKORIATZA

> Amuska emakume taldeko antzerki taldearen debuta

Amuska emakume taldean sortu den Ausartak antzerki taldeak bere estreinaldia egingo du, *Marizipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi* ipuinaren moldaketa bat antzeztuz. Olatz Pagaldai aktoreak zuzenduko ditu.

Bihar, zapatua, unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

ELORRIO

> 'El pisito' antzezlanaren egingo du Trapu Zaharra taldeak

Donostiako Trapu Zaharra taldeak *El pisito* kale antzerki dibertigarria eta harrigarria dakar Elorriora. Banandurik dagoen gizon bikotea roulotte baten bizi da. Lurzoru bila dabilta, izan ere, kanpaleku batetik alde egin behar izan dute, hango zorrak ez ordain-tzeagatik.

Musika

ARRASATE

> Led Zeppelinin tributu talde Mothership-en emanaldia

Led Zeppelin taldearen tributu talde Mothership-ek kontzertua egingo du. Legazpiarrak dira.

Bihar, zapatua, Zarugalde kaleko Gure Leku tabernan, 23:00etan.

OÑATI

> Rogelio Botanz kantautorearen kontzertua Guria tabernan

Rogelio Botanz (Legazpi, 1956) musikariak kantaldia egingo du Kale Barriko Guria tabernan.

Etzi, domeka, 20:00etan.

BERGARA

> Azkaiter Peloxek diskoa aurkeztuko du skate parkean

Azkaiter Peloxek eta bere taldeak 2010eko martxoan grabatutako diskoa aurkeztuko dute grabatu zuten leku berean, Laino skate parkean, alegia. Argazki erakusketa eta martxoko kontzertuaren bideo proiektzioa egingo dute. DJak egongo dira eta pintxoak ere bai.

Eguenean, hilak 22, Laino skate parkean, 19:00etan.

BERGARA

> Santamarinetako emanaldiak Aritzeta eta musika bandak

Uztailaren 18a Santa Marina eguna dela-eta, Aritzeta abesbatzak eta Bergarako musika bandak emanaldi bereziak egingo dituzte.

Bihar, zapatua, Aritzeta abesbatzak egingo du kontzertua, honako errepertorioarekin: *Cantiga de Noiteboa* (Julio Dominguez), *Nerea Izango Zen* (Javier Busto), *Alleluia* (Randall Thompson), *La Paloma* (Manuel Massotti Littel), *El*

Abanico (J. Trayler) eta *Segalariak* (Josu Elberdin). Imanol Urtzelaik zuzenduko du emanaldia, Santa Marina parrokiaren, 19:45ean.

Etzi, domeka, udal musika bandak kalejira egingo du (11:30) eta, segidan, kontzertua udal pilotalekuan. Errepertorioa haxe izango da: *Añoranza* (pasodoblea, A. Glez. Chirlaque), *Devonshire* (obertura, D. Ployhar), *Katuska* (zarzuelako selektzioa, P. Sorozabal), *My fair lady* (musikala, F. Loewe) eta *Frenesí* (A. Dominguez).

Alfredo González Chirlaquek zuzenduko ditu musikariok.

Aritzetaaren emanaldia bihar, zapatua; udal musika bandarena, etzi, domeka.

ESKORIATZA

> John Maurerren (Social Distortion) Five Alarm Fire

Errekan Gora egitarauaren barruan, 20 bat urtean Social Distortion taldeko baxu-jotzaile izan zen John Maurerren talde berriaren, Five Alarm Fire-ren kontzertua izango da, etzi, domeka. Los Angelesko punk onena, zuzenean.

Etzi, domeka, Gernika plazan, 19:30ean.

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Belgikako Shake That taldeak 'On the rocks' delako kale-zirku emanaldia egingo du

Eskarmentu handiko kaleko zirku bost artista belgikarrek *On the rocks* ikuskizun harrigarria egingo dute, taberna zulo baten. Nahastuko dituzte malabarismoa, umorea, magia, ikus-entzuleei eraginez, koktel zoragarriak eginez. Komedia eta malabarismo ikuskizunaren koktel horrekin, ikustera joaten den oro ondo aseta uztea lortuko dute. Udazabal egitarauaren barruan antolatutako saioa da.

Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 20:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ERRUSIAR MENDIAREN SIMULAGAILUA

Sentsazio berriak frogatu nahi?

Errusiar mendiaren simulagailuan zirrara sentituko duzu eta Tranbia gidatzaileen berriz zure abilezia neurtu.

Simulagailuen ordutegia: asteburu eta jai-egunetan
11:30-14:30 eta 15:30-19:00

Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 012 478

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Ordutegia
Asteleheneretan ixita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

Txubio F. de Jauregi, Santi Ugalde eta Javier Barandiaran dira aktoreak.

Etzi, domeka, plazan, 19:30ean.

Lehiaketak

ARAMAIO

> **VI. Postal lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak**

VI. Postal lehiaketan parte hartzeko aukera dute aramaio-arrek, Txirritola elkartera oporretako postala bidaliaz. Jokoan dago bi lagunendako afaria herriko jatetxe baten. Postalak deskribapen laburra izan beharko du, eta kontuan hartuko dira originaltasuna eta euskara maila.

Honako helbidera bidali postala: Txirritola euskara elkartea; kultura etxea; Aramaio 01160 (Araba).

Muga-data: irailak 15.

Ospakizunak

ANTZUOLA

> **Mairuaren Alardea egingo dute, herriko jaien barruan**

Valdejunkeran 920. urtean Abd al-Rahman III.aren aurkako bataila gogora ekarriko dute antzularrek.

Alardearen ospakizunaren barruan, hainbat gauza dira aipagarri: musika, bandera, buruzagiak egiten duen hitzaldia eta hitzaldiarekin batera kantatzen dituzten bertsoak.

Aurten, berritasun moduan, gainera, Abd al-Rahmanek segizio handiagoa izango du.

Bihar, zapatua, 19:00etan.

ARAMAIO

> **Santa Marina jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Aixelan**

Honako ekintzak izango dituzte, besteak beste: gaur, egubakoitza, auzo bertso-afaria, Egaña eta Lizasorekin (21:00); bihar, zapatua, meza (12:00), Ibarratik Aixolara bizikleta lasterketa (13:00), kanpai-jotze erakustaldia (19:30) eta dantzaldia (22:30); eta etzi, domeka, meza (12:00) eta umeendako jolasak (18:00).

Gaur, barikua, etxafuegoak eta kanpaiak.

ARRASATE

> **Gaur, egubakoitza, hasiko dira Santa Marinako jaiak**

Honako ekintzak antolatut dituzte Santa Marinako jai batzordekoek: gaur, egubakoi-tza, poteoa, doako pintxoekin (18:00); eta bolo-boloa eta umeendako jolasak ere bai (18:30). Gauean, DJ Arceren eta Ateneo Orkestraren musikarekin dantzaldia izango da (23:00). Bihar, zapatua, umeendako ekitaldiez gainera, bolo-palma txapelketa jokatuko dute (13:00), auzoa bertako batukadak girotzen duen bitartean; eta besteak beste, *kojonudoak* ere izango dira, 19:30ean. Eta etzi, domeka, esaterako, karaokea egingo dute (17:00).

Aste bukaera osoan ospakizunak.

Zinema

ARRASATE	Madres e hijas 18:00, 20:15, 22:30.	Eclipse 16:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 19:00, 20:00, 21:30, 22:30, 00:00, 00:45.	ÁBACO BOULEVARD
MONTERRON PARKEA	Shrek, felices para siempre 18:00, 20:15, 22:30.	Sexo en Nueva York 2 17:30.	Robin Hood 19:30, 22:15.
Los mundos de Coraline Egubakoitza: 22:30.	Villa Amalia 22:30.		Que se mueran los feos 16:05, 18:10.
ARETXABALETA	Gainsbourg, vida de un héroe 18:00, 20:30.	Marmaduke 16:15 (zapatua eta domeka), 18:15.	El circo de los extraños 15:45, 18:00, 20:20, 22:35, 00:45.
ARKUPE	Un regalo para ella 18:00, 20:15, 22:30.	Un ciudadano ejemplar 20:20, 22:35, 00:50.	Una hora más en Canarias 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.
Furia de titanes Egubakoitza: 21:30. Astelhehena: 16:00.	Una hora más en Canarias 18:00, 20:15, 22:30.	Two lovers 16:00 (zapatua eta domeka), 18:10.	
Millennium 3 Eguaztena eta eguena: 16:00.	London river 18:00, 20:15, 22:30.	Legión Zapatua eta domeka: 18:40, 20:40, 22:40, 00:40. Egubakoitza, astelhehena eta martitzena: 20:40, 22:40, 00:40.	
ELGETA			
ESPALOIA			
Flower power Eguaztena: 21:30.	YELMO CINEPLEX		
GASTEIZ	Shrek, felices para siempre (3D emanaldiak) 15:30, 16:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30, 23:30, 00:30. Martitzena: 20:30, 22:30.	Madres e hijas 19:45, 22:05, 00:25.	
GURIDI		Kick ass 18:00, 20:15, 22:30 (eguen a).	
Eclipse 17:00, 19:45, 22:30.	Shrek, felices para siempre 16:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.	Cómo entrenar a tu dragón 16:40 (zapatua eta domeka), 18:40 (egubakoitza, astelhehena eta martitzena).	
Un sueño posible (The blind side) 17:00, 19:45, 22:30.	En pata de guerra 17:00 (zapatua eta domeka).	La vida privada de Pippa Lee 15:45 (zapatua eta domeka), 17:45.	
Shrek, felices para siempre (3D emanaldiak) 17:00, 19:45, 22:30.	El príncipe de Persia 15:45 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.	Noche y día 15:30 (zapatua eta domeka), 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.	
Marmaduke 17:00.	Robin Hood 19:00, 21:40, 00:20.	Una hora más en Canarias 16:10 (zapatua eta domeka), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.	
Nothing personal 18:45, 22:30.	El retrato de Dorian Gray 20:10, 22:20, 00:30.		
María y yo 17:00, 20:30.	Que se mueran los feos 20:20, 22:30, 00:40.	Uztailaren 15etik 20ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.	
La vida privada de Pippa Lee 17:30, 20:00, 22:30.			
Noche y día 17:30, 20:00, 22:30.			
La vida empieza hoy 19:45, 22:30.			
FLORIDA-GURIDI			
Eclipse 18:00, 20:15.			



LA CHICA DEL TREN ***

Gizarte baten nahaste emozionala

> **Zuzendaria:** Andre Techine.
> **Aktoreak:** Catherine Deneuve, Emilie Dequenne, Michel Blanc.
> Frantzia, 2009.
> 105 min.

Gaurko filma zinema txikietara heltzen den horietakoa da. Zuzendariek, Andre Techinek, eta aktoreek, Michel Blanc eta Catherine Deneuvek, urte asko daramate euren talentua erakusten; ez dira izar komertzialak. Eta kontuan izaten badugu filma jatorrizko hizkuntzan, frantsesez, azpituluekin estreinatu dela, erraz uler daiteke karteldegitik pasatzea zarata gutxi eginez. Dena den, merezi du *La chica del tren* ikustea eta badi-tu hainbat puntu interesgarri. Filma oinarritzen da duela urte batzuk Parisen gertatutako istorio baten. Neska batek esan zuen gazte talde batek erasotu egin zuela judutarra zela pentsatu zutelako. Istorioa faltsua zen, eta abiapuntu hori hartuta Techinek era desberdinetako gatazka dramatikoak sortzen ditu. Neskaren nahaste existentziala, gezurrak eta horiek dakarten kalteak, fami-

liaren arteko harreman konplexuak, gizartean dagoen sentsazionalismoa, askotan datuak kontrastatu barik heltzen zaizkigun informazioak berehala sinisten ditugula...

Ez dut esango filma hotza denik, baina bai nahiko zerebrala. Dena oso pentsatuta dago, eta agian horrek naturaltasun apur bat kentzen dio istorioari, agertzen diren pertsonaiak dramatikoki erlazionatu nahi direnean. Horrekin ez dut esan nahi dena mastekatuegia ematen zaigunik; alderantziz, pertsonaien arteko harreman eta istorioak azaltzen zaizkigu, baina dena guztiz zehaztu gabe, bakoitzak bere ondorioak ateratu ditzan. *La chica del tren* hobeto dago neskaren harreman pertsonalak erakusten dituenean: amarekin, bikotekidearekin, mutiko gaztearekin. Harremanak abokatuekin eta komunikabideen tratamendua-rekin nahasten direnean ez dira hain ondo mantentzen, Filmak kasu partikularretik orokortasunera jotzen duenean jaitsi egiten da.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa



Zer dira Arrasateko udaletxeko arkupetan dauden marra horiek?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Oñatiko **Mila Moyua**.
Erantzun zuzena: Madalenako ermita.

ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
Jon XXIII plazan aurkituko gaituzu
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago krintza: botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Arizmendikoen ihesaldia

TOURRERA BIZIKLETAN Eguaztenean abiatu ziren Nafarroako Egues herritik eta hilaren 20an iritsiko dira

HELMUGA BERRIA Orain arte Done Jakue bidea egin izan dute, baina aurtentourmalet dute helmuga

ESAIT-EKOEKIN BATERA Uztailaren 21ean txangoa egingo dute Euskal Herriko selekzioen alde

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Arizmendi ikastolako ikasle eta begirale txirrindulariek honezkerro lehenengo izerdialdiak botata izango dituzte. Martitzenean bizikletak kamioira igotzen harrapatu genituen Arrasateko Musakolako aparkalekuan eta egunean Nafarroako Egues herritik Tourmaletera abiatu ziren.

Urteak joan eta urteak etorri, tradizio bihurtu da dagoeneko udako oporren hasieran Arizmendikoe egiten duten bizikleta irteera hori. Done Jakue bidea dagoeneko ondo jorratuta dutela-eta, Tourmalet izango da aurtengo helmuga.

BEDERATZI EGUN, ZAZPI ETAPA

80 pertsonako taldea Pirinioetara bidean da: 68 ikasle eta hamabi begirale. Batzuk bizikletan ibiltzera ohituak, beste batzuk ez horrenbeste. Entrenamendu eta bilerak egin dituzte; guztia beharko dute, aurtengoa ez da-eta txantxetako irteera: "Orain arte Done Jakue bidea egin izan dugu, eta hura lauagoa da. Aurtentourmalet etapa egingo

ditugu eta azkenengo hirurak nahiko gogorrak izango dira", kontatu digu Urtzi Amiano begiraleak. Dena dela, esfortzuak eta sufri-menduak izango du saria.

ESAIT-EKIN TOURMALETEN GORA

Arizmendiko txirrindulariak uztailaren 20an iritsiko dira Tourmaletera eta Mikel Lizarralde eta konpainiaren taldera batuko dira. "Lizarraldekin urtero antolatzen du Debagoienetik Tourrera irteera. Aurtentourmalet ere talde handia doa eta euren azpiegitura aprobetxatuko dugu han gauden bitartean. Festa giroan ibiliko gara, trikiti eta guzti. Uztailaren 21ean, gainera, euskal selekzioen aldeko itzulitxo egingo dugu Tourmaleten ESATtekoekin batera". Uztailaren 22an etorriko da sari potoloa: Tourreko izarrak bertatik bertara ikustea.

Schleck, Contador, Samuel Sanchez eta Armstrong korritzen ari diren Tourrak arreta eta titulu asko eragingo ditu, baina Arizmendiko txirrindularien Tour partikularra ere ez da makala.



TOURRERA Arizmendi ikastolako neska-mutiko eta begiraleak, eguaztenean, bizikletak kamioian sartzen Musakolan. T. MADINA

ahobero

"Ni ez naiz 'playboy' bat, baizik eta 'play-old' bat"

Silvio Berlusconi

> Italiako lehen ministroa

Ez dakigu inoiz *playboy* bat izan den, baina emakumezalea izaten jarraitzen duela argi dago; eta lotsagabea ere bai. Asteon Milanen egin den Mediterraneoko ekonomia foroan, *play-old* bat dela esan ostean, honako mezua eman zien beste herrialdeetako agintariei: "Noizean behin ekarri emakume ederrak. Latinoak gara eta asko eskertuko dugu".

iturri onetik

Arrasateko Ain_1 taldea Bosniara joango da SOS Balkanes elkarteak gonbidatuta

SOS Balkanes elkarteak bidaia antolatu du Bosniara, Gorazde hirira, bertako errealitatea erakusteko. Arrasateko Ain_1 musika taldeak bidaia horretan parte hartuko du eta *Festival Internacional* izeneko jaialdian bi kontzertu emango ditu: abuztuaren 2an eta 4an. Kontzertuak eskaintzeaz gain, bidaian zehar gauzatuko diren zenbait proiektutan ere hartuko dute parte.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Udal giltza?

Asteon hasi da Udalbiltzaren aurkako epaiketa. Garzonek asmatu zuenean *guztia da ETA* izeneko delitu kolektiboa atea ireki zuen hainbat makrosu-mario lotsagarri abaiarazteko: 18/98, *Egunkaria*, Udalbiltza... Urteak eta aurre-zigorak pasa ondoren, erabakitze-ko ordua iristen ari zaie auzi horiei.

Udalbiltza egitasmoaren helburua politikoa zen: udal oinarriko egitura sortzea Euskal Herri osorako. Egitasmoa ETArekin lotzeko Garzonek delitu-txikiea erabili zuten, baina frogen ordua iritsi denean ez dago frogarik. Horixe adierazi dugu 33 hiritarrek Udalbiltzaren aldeko agirian, eta horren alde bildu ginen astelehenean multzo bikaina Donostiako agerraldian. Denon ardura baita ez ditzaten Udalbiltzako auzipetuek giltzapean sartu.

ai, ene!



Horrenbeste GPSrekin ez dago errepidean galtzerik

Zoratzeko modukoa izan behar du bidegurutzera iritsi eta GPS guztiak batera hizketan hasteak. Ez da galduko, ez!

www.fotos-curiosas.com

Antzuolako jaiak

ANTZUOLAKO JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEA-N
Astelehenean, uztailaren 19an,
19:45, 21:45 eta 23:15ean



Ikustekoa!

